


GUaixe.net



**Lazkoz,
Nafarroako
zortziko handian**



Kultura >> 15

Altsasuko IV. duatloia bihar
jokatuko da. **Goizean** Nafarroako
Kirol Jolasetako proba **eta**
arratsaldean helduena



Kirolak >> 13



Mauka ederrak eskuratzeko aukera izanen da Irurtzungo plazan. ARTXIBOA

**Irurtzun,
Etxarri, Altsasu
eta Olatzagutia
Antzoki
Sarean**

Nafarroako 25 udalek
osatzen dute. Progra-
mazioa bermatzea da
helburuetako bat

Etzi 25. elkartasun azoka

>>9

>>14

**Sunsundeguiko
hornitzaileak
kezkaturata**

>>8

**Sexualitate
gaitetako
murrizketak
salatu ditu AFk**

>>7

**Estrasburgora
begira
protesta**

>>8



Auzo konposterako etxolarekin batera atez ateko bilketa sistemarako zintilikarioak aurkeztu zituzten.

Hemen da auzo-konposta

>>5



**Hezkuntza lege
berria,
informatu aurka
egiteko**

>>7



**Tronboi-joleen
biltzarra, Haize
Berriak bandak
antolatuta**

>>14



**Lakuntzarrak
Nafarroako
Haur Kantari
jaialdian**

>>14



**Milaka pertsona
errausketaren kontra
elkartu ziren**

>>6

ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan!

LEHALSA

Leiho-Isolatzaileak • Alumninoa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), **Altsasu**
Telf.: **948 468 559**
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Ane eta Erkuden
ONGI ETORRI neska politt hori. ZORIONAK gurasoei!! Aittun-amiñak.



Ane eta Erkuden
Muxu handi bat etxeko printzesei!! Aitor.



Goiuria Anso eta Jare Fortuna
ZORIONAK bikote!! Martxoaren 25ean 31 eta 2 urte beteko dituzue. Ondo pasa zuen egunean. Asko maite zaitzudet. Aitaxo Pablo.



Jare Fortuna
ZORIONAK sorgintxo!! 2 urte betekottuzu martxoaren 25ien. Prestatu txokolate goixue maitia. Etxarriko familiye.



Igor Artieda
ZORIONAK IGOR!! Azkenik zure urtebetetzea iritsi da eta dagoeneko 38 bete dituzu. Nor da zaharrago orain? Asko maite zaitut.



ZORIONAK PITIUSA, azkenean 6 urte bete dituzu. Ondo pasa urtebetetze egunean!



Udane eta Naiara
Zorionak etxeko printzesa polittenei, batek 11 eta besteak urte bat betetzen duzue. Muxu potolo bat Etxarriko familiyan partez. Ondo pasa preziosas.



Udane
Zorionak preziosa zure 11. urtebetetzean. Berandu bada ere zutaz gogoratu gara. Espero dugu zure egunean ondo pasatuko zenuela, muxu handi bat ama, aita eta Ametsen partez muaaaaa.



Uxue
ZORIONAK Uxue!! Mila muxu zuretzat!! Aitaxoren partez.



Urko Izagirre
Nola pasatzen den denbora!! Martxoaren 18an 14 urte egin zenituen, eta 25ean 10 urte gurekin! Zorionak aita eta amaren partetik.



Iradi
Zorionak begi zabal! Ondo pasa zure lehenengo urtebetetzean eta ez hasi tarta jaten gu gabe! Muxu handi bat zure birramona Rosarioren partez.



Jare
ZORIONAK zure Altsasuko lehengusuen partez muxu handi bat.



Iosu
ONGI ETORRI IOSU!! Asko maite zaitugu. Milaka muxu gure gizontxoarentzat. Etxekoan partez.



Patxi
Zorionak, Patxi, hamalau urte dagoeneko! Ondo pasa zure egunean eta txintxo ibili!! Athleeeeeet!! leu! Etxekoan partez.



Patxi
Zorionak! Nola handitu zaren, eh? Txikitan Osasunakoa eta... orain? Athleticakoa! Eskirol halakoa! Zure lehengusinen partez.

mendi taldeak.

Txirrindula irteerak

Baiza. Martxoaren 24an, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 10:20ean Bioitza kanpinetik. 47 km. **Burunda Mendi Bizikleta taldea.**

Erakusketak

Post 2013: Myalbum. Bienvenido al reino de la apariencia. Martxoaren 23ra arte, 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko Iortia kultur gunean. **Maria Alché, Paco Gomez eta Maider Kuadra.**

Ura Sakanan. Martxoaren 31ra artea Irurtzungo Tahonan eta Pikuxarren. Irurtzungo pintura tailerreko emakumeek eginak.

Literatura

Tecia Rota. Martxoaren 22an, ostiralean, 21:00etan Olatzagutiko kultur etxea. **Literatur solasaldia Joseba Salegirekin**

Tailerrak

Adimen emozionalraren bidezko heziketa (3. saioa). Martxoaren 22an, ostiralean, 9:30etik 11:00etara Olatzagutiko Akelarre ludotekan.

Brikolajea. Martxoaren 23an eta 24an, larunbat eta domeka arratsaldean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Bestelakoak

Ekarriko ditugu, elkartasun bingoa. Martxoaren 22an, ostiralean, 21:30etik aurrera Etxarri Aranazko Karriestu elkartean.

Arakilgo Zuhaitzaren eguna. Martxoaren 23an, larunbatean, 16:00etan Ekain.

Bigarren eskuko azoka. Martxoaren 24an, igandean, 10:00etatik 14:00etara Irurtzungo plazan. **Itxipuru taldea.**

Atez ateko bilketa puntuen proposamena. Martxoaren 22an, ostiralean, 20:00etan Bakaikuko elkartean. Martxoaren 25ean, astelehenean, 19:00etan Lakuntzako udaletxean eta 20:00etan Arbizuko udaletxean. Martxoaren 26an, asteartean, 20:00etan Iturmendiko udaletxean.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Martxoaren 22an, ostiralean, 20:00etan, Irurtzungo, Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Martxoaren 24an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako Langabetuen Asanblada. Martxoaren 25ean, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

marsuak

22-27

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Plan de Emerjencia eta Pipes and pints. Martxoaren 22an, ostirala, 23:00etan Altsasuko Gaztetxean.

Danzas en femenino. Dando la vara. III. edizioa. Martxoaren 24an, larunbatean, 20:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean. **Haize Berriak banda.**

Musika eskolako ikasleen entzunaldiak. Martxoaren 25ean, astelehenean, 19:00etan (akordeoia) eta martxoaren 27an, asteazkenean, 19:00etan (zeharkako txirula, gitarra, txistu

eta pianoa) Etxarri Aranazko kultur etxean.

Antzerkia

Jon Beldurgabea. Martxoaren 23an, larunbatean, 17:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean. **Txalo.**

Ipuin kontalaria

Basoan galduta. Otsailaren 22an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Birjiñe Albira.**

Dokumentalak

Mondragon 1936: Mujer, gerra y represión. Martxoaren 22an, ostiralean, 19:30ean Irurtzungo kultur etxean. **Aurkezlea: Julia Monge.**

Gainontzeko erdia: lilan begiratzuz. Nafarroako mugimendu feministaren historia. Martxoaren 26an, asteartean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Zinema

Melancolia. Martxoaren 22an,

ostiralean, 21:45ean, eta martxoaren 24an, domekan, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Lincoln. Martxoaren 22an, ostiralean, 22:00etan eta martxoaren 24an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Yoko. Martxoaren 24an, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Mendi irteera

Tologord-Salvada. Martxoaren 24an, igandean, 7:00etan Irurtzungo autobusa, herriz herri. **Sakanako Mendizaleak.**

Ziordia-Legunbe. Martxoaren 24an, domekan. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

Atako ibarra. Martxoaren 24an, igandean, 9:30ean Etxarriko ikastolatik. **Sakanako Ikastolen**

Ostiralero 9:30etik 10:30era **SAIOA**

Asteburuko agenda

Asteko errepasoa: albisteak, kirolak, Patxi Rabaz, Parot doktrina, errausketa...

Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

Piztu irratia!



Cederna-Garalur

Nafarroako Mendialdearen garapenaren aldeko apustua

Martxoak emakume zeinua du. Dударик gabe hori arrazoi ona da aldarrikatzeko emakumeek lurraldearen garapenean jokatu eta jokatzen duten paper garrantzitsua. Hori bai Luis Camarero soziologoak esan zuen moduan: “zaila da emakumeek landa eremuan hitz egitea haien falta nabarmendu gabe”. Ikusi-ezintasuna eta haien itxaropenekin bat datorren bizi proiektua gauzatzeko aukera falta beti zaila goa izan da landa eremuko emakumeendako hirietakoendako baino. Horrek ekarri du, batez ere, emakumezkoak hirietara “ihes” egitea. Emakumezkoen migrazio handiago hori, dudarik gabe, landa eremuan dagoen aukera ezberdintasunaren isla da. Horregatik, landa garapeneko politiken desafioan emakumezkoen sustraitzea dago. Haiek gabe lurraldearendako ez baitago etorkizunik. Azken joerek pentsarazten dute emakume gazteak landa inguruan gelditzeko apustu egiten ari direla. Hala ere, apustu hori lan eskaintzei eta horiek gauzatzearrazten duten baldintzekin zuzenean lotuta dago.

Prestakuntzan nabaritu izan dut administrazioaren laguntza falta



Begoña Goikoetxea Zabaleta

Legarbe karakol haztegia du Etxarri Aranatzan. Hainbat enpresatan lan egin ondoren, 12 urte daramatza karakolekin.

Landa eremuko emakumezkoen %7 besterik ez du lan egiten nekazaritza-abeltzaintza sektorean.

sektore berean dagoen jendearekin hobeki moldatzen zara. Horretarako sindikatuan egon behar dut. Ni lanean bakarrik nago eta bizi soziala egiteko modu bat ere bada.

Emakumeek parte hartzen dute?
Nik gehien bat parte hartzen dut Bizi-Lur taldearekin, Iruñerriko merkatu gardena antolatzen duguna. Paretsu gaude, gizonezkoak zerbait bat gehiago agian. Salmenta zuzenean bai gaudela emakumezkoak. Belardin ez, 11tik 3 gaude, ez dela gutxi.

Eguneroko lana, familia... elkarteetara nola iristen zara?
Batzuetan hemen ezetz esaten, beste batzuetan haurra norbaitekin uzten eta beste batzuetan Legarbe erdi abandonatuta utzita.

Landa eremuan, emakumea eta langilea izanik, zeren premia sumatzen duzu egunerokoan?

Zerbitzuak premiazko ikusten dut. Zeren haurren eta helduen zaintza guregan gelditzen da gehienetan. Karakolen gaia nahiko berria zen eta ez zen ezagutzen eta nahiko arazo izan ditut. Nire kabuz espermentatu behar izan dut. Oso pisua, eta ekonomikoki beste gastu bat da. Horretan ez dut laguntzarik ikusi, horren falta sumatu dut. Uste dut karakolen granjak ongi aztertu gabe daudela. Ikerketa sakon bat behar dela iruditzen zait, sektoreak etorkizuna izan dezakeelako. Hori nik ezin dut egin. Adibidez, ugalketa. Oso garrantzitsua da. Saiakera asko egin nituen eta azkenean lortu nuen. Baina ez dut laguntzarik izan eta ezin dut horrekin jarraitu. Agian aurrerago berriz saiaturiko naiz. Nire poltsikotik ari naiz dena ordaintzen eta denarekin ezin dut. Beste herrialde batzuetan Estatuak adituak eraman ditu jendea karakol granjak muntatzen trebatzeko; Estatuak prestakuntzaren kostua bere gain hartuz. Horretan nabaritu izan dut administrazioaren laguntza falta. Hemen ez dagoenez, kanpora joan beharra eta dena nire poltsikotik ordainduta.

Osorik: www.guaixe.net

Bestelakoez gain, emakumezkoek aisialdiko aukerak eskaini behar zaizkie



Yolanda Olasagarre Mendinueta

Soziologia ikasketak egin zituen. Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuan lan egin zuen. Gaur egun, hezkuntza publikoan lan egiten du.

Landa eremuko okupatutako emakumeen %78,5ek hirugarren sektorean lan egiten du. Gainera, hamarretik bik unibertsitate ikasketak ditu. Profesional hauen mugikortasuna oso altua da.

tua ere aldatzen ari dela. Zerbitzuetan lan eginez gero, gauza asko Internet bidez egin daitezke.

Zuzendaritza taldeetan parte hartu duzu?
Ez. Euskara Zerbitzuan nengoenean kargu politikoekin eta halakoekin harremana nuen. Ardura pixka bat, baina ez nengoen zuzendaritza taldeetan. Orain, ezta. Nire arduradunak emakumezkoak dira.

Hortik aurrera kontrakoa gertatzen da, ez?
Datuek argi eta garbi esaten dute. Esaterako, irakaskuntzan, Haur eta Lehen Hezkuntzan oso gizon gutxi daude irakasleen artean. Mailetan gora egin ahala gehiago daude. Ikastetxe horietako zuzendaritza taldeetara jotzen badugu, gehiengoak gizonezkoa izanen da. Eta zer esanik ez unibertsitatean. Hori aldatzen ari da. Kultura eta lehenetsun kontua da. Orain arte, akaso, emakumezkoek lehenetsuna beste arlo batzuetan jarri ditugu, familian eta beste arlo batzuetan. Hemendik aurrera ikusiko da zer gertatuko den.

Herri batek zer zerbitzu izan behar ditu emakumezkoak bertan gelditzeko?
Lana bertan baldin badago, primeran. Norberaren ingurune hurbila herrian bertan egotea faktore inportantea da. Komunikazio aldetik nahiko ongi gaude. Horiek mantentzea eta hobetzea izan daiteke. Internet-en bidez zerbitzuen arloan ari direnei gauzak errazten bazaie ere, primeran. Herriek eskaini behar dute hiriek eskaintzen ez dutena: lasaitasuna, basoa, baratzak, gizarte bizitza... Eta emakumeei, gainera, aisialdiko aukerak eskaini behar zaizkie. Edo emakumezkoek aukera horiek hartzea. Aisialdi hori zentzu zabalean ulertuta: lagun taldeak direla, kirola dela... Emakumezkoen zaletasunak bilatzen joatea. Askotan, nik uste, gure zaletasunak zein diren ez dugula garbi. Hori puntu garrantzitsua izan daiteke. Gizonezkoenak agerikoak dira. Emakumezkoenak pixka bat ezkutuan gelditzen dira.

Osorik: www.guaixe.net





Zoila Berastegi

Panorama

astekoa

LURRA: Adituek diotenez lurra arrisku larrian dago: Poloetako lur izoztuak urtuz doaz, CO2 emisioak ozono kapa zulatzen duten heinean. Basamortu eremuak zabaltzen doazen honetan, maki-na bat espezie betirako desager-tzen ari dira, “gizakia” izeneko izurrite bat dela eta. Espezie bitxia omen, bere izana izenpe-

tzeko gaitasuna duena, eta beraz... kontzientzia. Baina edo-non eta edonola ahazten duena. **MUNDUA:** Gizakiak lurramugaz betedu, mugikortasun eskubidea deuseztatuz, kapitalarentzat izan ezik. Izan ere, eskubideak ez dira denontzat berdinak. **EUROPA:** Krisiak jota dagoela diote. Baina agintariek ba omen

dute irtenbiderik. Murrizketak lehenik eta azkenik, salbuespe-nak salbuespen. Izan ere, egin beharrak ez dira denontzat ber-dinak. **ESTATU ESPAINIARRA:** Korrup-zioa, gezurra, lotsagabekeria, panderoak, erregeak, eskularru zuriak, doktrina, erregimena, ustelkeria, prentsa arrosa, zirkoa,

elefanteak, lapurrak, lapurrak, lapurrak. **EUSKAL HERRIA:** Bere izana izen-petzeko gaitasuna duena, eta beraz... badena. Lurra. Kontzien-tzia duen herria eta ondorioz, murrizketa-suntsiketa-desager-keta formulari beste modu bate-ra erantzuteko sormen ahalme-na duena. Eraikitzez, jaikitzez,

haztez ahazten ez dena. Gurea. Denona. **GIZAKIA:** Ni, zu, hura, gu, zuek, haiek. Kontzientzia dugunak. “Panorama orokorrak moldatzen ote gaitu edo guk moldatzen ote dugu panorama orokorra?” gal-detzeko ahalmena duena. Ni, zu, hura, gu, zuek, haiek. Kontzien-tzia dugunak?

hara zer dien Ipuinak umeei kontatzearen onurak

Umeei helduok ipuinak kontatzea asko gustatzen zaie. Zergatik eskatzen digute behin eta berri-ro ipuin bera kontatzeko eta bes-te ipuin batzuk aldiz ez zaizkie interesatzen? Ipuin baten atzetik gauza asko daude. Bruno Bettel-heim psikologoak bere “Psikoa-nalisia maitagarri ipuinetan” liburuan esaten du ipuin batzuen

atzetik esanahi ezberdinak dau-dela eta alde politez gain, alde ilun bat islatzen dutela, sentitzen dut zerbait, baina esan ezin daiteke-ena ezkutatzen dute modu sinbo-liko batean. Beraz, ume bakoitzari ipuin bakoitzak zerbait esan-go dio eta behin eta berriro kontatuz, barnean daukan hori askatzen lagunduko dio. Juan

Carlos Alonso psikologoak dioe-nez, haurrak fikzioa behar du bere barneko korapiloak askatze-ko. Bere hitzetan, errealitatean horretaz ez delako hitz egiten: familian, eskolan, gizartean ez da hitz egiten heriotzaz, edo bakar-dadeaz, adibidez. Baina haurrak egoera horiek sentitzen ditu, eta errealitateak horiei buruz min-tzatzen uzten ez dionez, fikzioz-ko pertsonaiak behar ditu, horiengan kanporatzeko. Ipui-nek adierazi ezin dena adieraz-teko ahalmena daukate sinboli-koki. Baina gakoa identifikazioa da. Ipuin batek bere lana egingo du, baldin eta identifikatzeko

aukera ematen badio haurrari. Beraz, ipuinek momentu atsegi-nak pasatzeko balio dute, adibidez, lotara joan baino lehenagoko momenturako, lasai gaudenera-ko..., eta momentu ez atseginak pasatzeko ere balio dute, adibidez barneko eta kanpoko gatazka per-sonalak barnetik askatzeko, bel-durrei aurre egiteko... Irudimena eta sormenabultzatzen dute, gura-so eta seme-alaben arteko komu-nikazioa areagotzeko balio dute. Umea ipuinaren protagonista bihurtu daiteke eta bere erreali-tatera hurbiltzeko ezinbesteko modu bat izan daiteke. Honek zeresan nahidu? Haurrek

fikzioaren bidez hobeto ulertzen dutela errealitatea. Ipuinak bere hizkuntza berean hitz egiten dio, fantasia eta irudimena erabiliz. Juan Carlos Alonso ren esanetan, adibidez, 4 urteko ume batek ez digu ulertuko esaten diogunean munstroei beldur izan beharez dio-la eta ez direla existitzen esaten diogunean. Azalpena entzungo du, baina ez ditu ulertuko gure “zergatiak”, berak beldurra sen-titzen duelako. Helduok haurrari hitz egiten diogu, arrazonamen-dua erabiliz. Ipuinak, aldiz, hau-rraren bihotzari hitz egiten dio. **Arantxa Sueskun Igoa, Psikologoa-Psikoterapeuta**

gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago dute gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

guztiak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

ERREDAKZIOAREN OHARRA >>

Ana Morales coach-ari aurreko astean egindako elkarrizketan ez genuen behar bezala asmatu. Horregatik, gaia zehaztasun guz-tiarekin emateko, osatuago, kon-tzeptuak argiago eta aberatsago elkarrizketa berridatzia web orrian jarri dugu.

goz luzatu. Are gehiago, ardura-dun horiek beraiek herritarrek nahi ez bazuten jarduera hori inposatuko ez zutela hitza eman zutela kontuan hartzen badugu.

Portlandek gizarteak argi eta garbi dioena errespetatu behar du. Gehiago itxaron gabe, proiektu hori bertan behera utziko due-la eta orain ari den moduan herri-tarren aurka aritzea baztertuko duela iragarri behar du.

Mobilizazioekin jarraitu behar dugu, bestela zaila izango delako beste era batera multinazional bihozgabe hau arrazionaltasu-naren bidera, hau da, herritarren ahotsa aditzera, itzularaztea.

Eskerrik asko eta hurren arte. <http://olaztinerrausketarikez.blogspot.com/es/>

Lehentasunak baliabideak behar ditu

Patxi Flores Lazkoz (Sakanako AEKko irakaslea) eta Garbiñe Petriati Ijurrea (Bierrik-eko bazkidea)

Aitor Karasatorrek eta, beraz, Bil-duk Sakanako Mankomunitate-ko lehendakaritza eskuratu zue-nean iragarri zuen zeintzuk izan-nen ziren legegintzaldi honetarako lehentasunak: euska-ra, gizarte zerbitzuak eta gara-pena. Euskalgintzatik pozez har-tu genuen berria ulertzen baitu-gu alor bat lehentasunezkoa izendatzen baldin bazuten, behar dituen baliabideez hornituko zutela. Usteak erdi ustel, ordea.

Azkenaldian toki-entitate gehienetan murrizketak egiten ari dira, eta Sakanako Mankomu-nitateak ere iragarri du egingen dituela. Nolanahi ere, ez die zer-bitzu guztiei eraginen murrizke-

tak, bi zerbitzu izanen baitira kaltetu bakarrak: Kirol Zerbi-tzua eta Euskara Zerbitzua.

Euskara Zerbitzuan 15.000 euro inguruko murrizketa iragarri-da. Hainbat jarduera kendu eta murriztuko dira, eta, alde horre-tatik, Sakanako Euskara Zerbi-tzuak azken urteetan izan duen plangintzarik eskasena izanen da aurtengoa. Haatik, murrizketa-rik nabariena diru-laguntzetan egingen dituzte—aurreko legegintzaldietan egin ez dena: diru-laguntzak murriztea, alegia—, eta hor Sakanan euskararen normaliza-ziorako funtsezkoak diren bi era-kunde izanen dira kaltetuenak: AEK-ko Itsasieuskaltgia eta Guaixe eta Belexe hedabideak kudea-tzen dituen Bierrik fundazioa.

Uste dugu euskalgintza funtsez-koa dela hizkuntzaren normaliza-zio prozesuan, eta horiek babeste-ko erakunde publikoen erabaki

ausartak behar ditugula. Jabe-tzengara ez dela ona Sakanako ego-era ekonomikoa eta seguruena Sakanako Mankomunitateko aurrekontuak egitea ez dela lan-bide erraza izanen. Hala ere, jus-tifikaziorik ez du zerbaitek lehen-tasuna duela iragarri eta gero baz-terrean uzteak. Pentsatu nahi dugu mankomunitateko agintariek atze-ra egingen dutela. Garaiz gabil-tza.

“No a la imposición de la incineración en Pórtland. Herritarren hitza errespetatu”

Gorka Muñoz, 3MB Plataforma

Joan zen larunbatean Altsasun “*No a la imposición de la incinera-ción en Pórtland. Herritarren hitza errespetatu*” goiburupean burutu zen manifestazio jendetsua, une hunkigarritz josia egon zen.

Guaixe

ARGITARATZAILA: Bierrik Fundazioa • bierrik@guaixe.net
GUAIXE: Foru Plaza 23, 1. solairua, 31800 ALTSASU • 948 564 275 • [948 562 107](mailto:948562107) • guaixe@guaixe.net
PUBLIZITATEA: Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net • Maria Saez de Albeniz Bregaña • publizitatea@guaixe.net • 948 564 275

Erredakzio burua: Alfredo Alvaro Igoa
Erredakzioa: Maider Betelu Ganboa
Maketazioa: Ainhoa Etxeberria Pikabea
Laguntzaileak: Amaia Amilibia Salgado, Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena, Gixane Andueza Goikoetxea eta Erkuden Ruiz Barroso
Zuzentzailea: Patxi Flores

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 4.500 ale

LAGUNTZAILEAK:



>> Etxarri Aranatz

Mustu dute Sakanako lehenengo auzo konposterako etxola

Ehun bat familien hondakin organikoak jasotzeko ahalmena dauka

Sakanan sortzen den hondakinaren %50 organikoa da. Hortaz, Sakanako Mankomunitateak jarriko duen hondakinak gaika biltzeko sistemaren lehenengo urratsa eman dute Etxarri Aranatzen: lehenengo auzo konpostatzailea mustu dute. Sakanako aurrenekoa da, baina ez azkena. Hurrengo hilabeteetan Sakanako zenbait herritan jartzea pentsatu dute. Joseba Andoni Beltza eta Eneko Lazkoz bertsolariek idatzitako Bertso berriak kaxetari jarriak abestu zuten. Aldi berean, etorkizunean atez ateko bilketa egiteko erabiliko diren posteak ikusgai egon ziren ere.

Mikel Arregi plazan eraiki dute auzo konposterako egurrezko etxola Etxarri Aranatzen. Eredua Frantziako Saint Philbert herritik hartu dute Mank-ek eta Etxarri Aranazko Udalak. Larunbatean Daniel Roux Frantziako konpostagileak beraien esperientzia azaldu eta

prozesuaren erakustaldi praktikoak egin zuen Adolfo Araiz Mank-eko gerentearen laguntzarekin.

Nola erabili

Prozesua erraza da: etxean sortzen diren hondakin organikoak bota behar dira. Zertxobait handiago diren zatiak aurretik txikitu behar dira, besteak beste, maskorrak. Etxolak bi eremu ditu, lau zatitan banatuta. Lehenengo eremuaren lehenengo zatian hondakinak botatzen dira eta ongi nahasten da. Ondoren, estrukturantea botatzen da geruza bat sortuz. Hurrengo herritarrek hondakinak bota arte estali egiten da. Hamabost egun behar dira betetzeko. Behin beteta, hondakinak bertan, bost edo sei hilabete egongo dira prozesu naturalaren bidez konpost bihurtzen.

Hura beteta, lehenengo eremuaren bigarren zatian botatzen dira hondakinak, bete arte. Araizek azaldu zuenez, estrukturantea Mank-ek jarriko du eta lehenengo egunetan ardura dun bategongoda



Hurrengo egunetan Mank-ek etxolaren funtzionamendua irakatsiko die Mikel Arregi plaza inguruko bizilagunei auzo-konpostajea egiten has daitezen. Parte hartzen dutenek %15eko hobaria izanen dute zabor tasan haien materia organikoari beste bizitza bat emategatik. ERKUDEN RUIZ BARROSO

kaxeta laguntzen. Prozesua ongi eginez gero usainak ez direla sortzen aitortu du Araizek. Momentuz, Etxarri Aranazko berrogei

familiak konpostatzailea erabiltzeko interesa erakutsi dute. Etxolak ehun bat familiak hondakin organikoak jasotzeko ahalmena izan-

387.000 euroko mailegua

Sakanako Mankomunitateak hondakinak biltzeko sistema berria ezarriko du aurten. Hura finantzatzeko mailegua eskatu du Rural eta Euskadiko kutxetan, erdi bana. Bideragarritasun planean mailegua eskatzea aurreikusia zegoen.

godu. Apirilean Udalak herritarrekin batzarra egingo ditu.

Ezaugarri hauek dituen konposta egiteko kaxeta Euskal Herriko lehenengoa da. Sakanako ezaugarrietara hobekien egokitzen zen eredua zela erabaki zuten: herri handietako pisuetan bizi diren herritarrei konposta egiteko aukera ematen zaie. Familia gutxiago dagoen auzoetan edo herri txikietan Mankomunitateak konpostatzaile arruntak eraikiko ditu kopurua eta neurria erabiltzaile kopuruari egokitzuz.

>>

Auzo-konpost eredua esportatzen

Larunbatean Etxarri Aranatzen mustu zen auzo-konposta egiteko etxola bisitatu zuten asteartean ibarreko hainbat udalek baita Sakanatik kanpoko hautetsiek. Mank-en gonbiteari erantzunez, Bortziriak, Irati, Izarbe ibarra, Goi Araxes eta Mendialdeko mankomunitateetako ordezkariak eta Nafarroako Hondakin Patzuergoko eta Betelu, Urretxu eta Legazpiko udaletako ordezkariak izan ziren Etxarriko eredua



Auzo-konpostara bisita.

aztertzen. Ideia eta argazkiak hartu zituzten, Sakanako ideia gogoko izan zutenaren seinale.

SAKANA

Hondakinen inguruko 2. erronda

Mank-ek herri bakoitzerako duen proposamena aurkeztuko du

Sakanako Mankomunitateak hondakin bilketa sistema berria mar txan jarriko du aurten, herri bakoitzaren beharretara egokituta. Hura aurkezteko herriz herriko erronda egin zuen otsailean. Orain bigarren erronda bati ekin dio, 300 pertsonatik gora bizi diren herrietan, atez ateko sistema jarriko den herrietan hain zuzen ere. Herenegun Urdiainen eta atzo Uharte Arakilen egin ziren herria-

1.300

Otsailean Sakanako aurkezpen bileretan izan ziren pertsonak.

ri dagozkion proposamenak. Bestalde, herenegun ibarreko udal guztietako ordezkariak Mank-en egoitzan bildu ziren auzo-konpostari buruzko ikastaro bat egiteko. Ondoren, parte-hartzaileek Etxarri Aranatzen larunbatean mustu zen etxola bisitatu zuten.

Bilera egutegia

Martxoaren 22an, 20:00etan Bakaikuko elkarteak.
Martxoaren 25ean, 19:00etan Lakuntzako udaletxean.
20:00etan Arbizuko udaletxean.
Martxoaren 26an, 20:00etan Iturmendiko udaletxean.
Apirilaren 10ean, 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean.
Apirilaren 11n, 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean.
Gainontzeko herrietako egunak zehazteko daude.

Bazkide zozketa



MARSUKO SARIAK:
- 2 SARRERA EKAINBERRI KOBAZULOETAN + TRIMAN NAVARRA 2 SARRERA
- KATXIPORRETA 1 ARROPA + TRIMAN NAVARRAREN 2 SARRERA
- KATXIPORRETA 1 ARROPA + TRIMAN NAVARRA 2 SARRERA
- KATXIPORRETA 1 ARROPA + TRIMAN NAVARRA 2 SARRERA

Non erabili Beleixeguaixe txartela

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai

EROSKI BIDAIAK

ALTSASU

%5eko beherapena, hiri hotelako eta garraio hutsen erreserbak izan ezik. Eskaintza ez metagarria

MARIXELE

ETXARRI

%5-eko deskontua irakurketako liburuetan.

LOPEZ DE GOIKOETXEA HARATEGIA

URDIAIN

50€-ko erosketa eginez gero,

etxeko produktua opari.

LARKA

ALTSASU

60€tatik gorako erosketetan %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.

FORD GABIRONDO

ALTSASU

Olio aldaketetan %30eko deskontua. %15eko deskontua lan mota guztietako eskulabetan.

LASTAI GASOLINDEGIA

ALTSASU

0,04€-ko deskontua litroko, erregai guztietan.

PATXI GALARZA

IRURTZUN

% 5-eko deskontua harategian eta supermerkatuan 100€rengatik txistorra opari.

JM AGIRRE HARATEGIA

LAKUNTZA

50€-ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

>> **Burunda****Osasun kontseilua errausketaren kontra**

Burundamendebaldeko Osasun Kontseiluak ahoz batez errausketaren kontrako mozioa onartu du. Olatziko FCCren porlandegian jarduera hori "inposatzearen kontra" azaldu zen kontseilua. Nafarroako Gobernuari eskatu dio Olatzagutian hondakinak erretzeko aukera baztertu dezala.

SAKANA**Mank-ek Portlandeko UGPSri helegitea aurkeztuko dio**

Sakanako Mankomunitateko batzarra erabaki zuen Olatzagutiko porlandegian hondakinak balioztatze-ko Nafarroako Gobernuak emandako Udalez Gaiindiko Proiektu Sektorialari (UGPS) helegitea aurkezte. Ilbeltzaren 16an emandako baimen horrekin batera, foru admi-

nistrazioak Portlanden ingurumen baimen integratu berria eta proiektuaren ingurumen inpaktua eman zituen. Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko auzien salara joko du Mank-ek.

Bi oinarri izanen ditu Mank-en helegiteak. Batetik, UGPS udal

autonomiaren kontra egiten duela argudiatuko da, Olatzagutiko Udalaren ordenantzen aurka jotzen duelako. Bestetik, Mank-ek argudiatuko du Nafarroako Hondakinen Kudeaketa Planean (NHKPI) ez dela aurreikusten porlandegietan hondakinak erraustea. Gober-

nuak lotura duela diola dio eta hala jasoa dago administrazioak eta enpresak sinatutako hitzarmenean. Baina NHKPI baliorik gabe utzi zuen epaiaren ondoren porlandegiaren balioztapen egitasmoak babes juridikorik duen ere zalan-tzan jarriko du Mank-ek.

>>

Milaka pertsona erraustegiaren aurka

Portland enpresari gizartearen nahia entzuteko eta erraustegiaren proiektua bertan behera uzteko eskatu dute

Errausketaren aurka milaka pertsonak manifestazioa egin zuten larunbatean Altsasun. Hiru Mugak Batera plataformak (3MB) deituta Sakanako, Arabako Lautadako, Goierriko eta Amezkoako herritarrek Nafarroako Gobernuari atzera egiteko eta Olatzagutiko porlandegian erraustegia ez egiteko eskatu dute. Nafarroako hainbat herritan erraustegiari ezetza eman ondoren "interes pribatuen" alde egitea eta erraustegia egiteko laguntzak ematea kritikatu dute.

Nafarroako Gobernuak Olatzagutiko Portlanden erraustegia "inposatu" nahi izatea kritikatu du 3MB-k. Herritarren erantzuna argi dago: "Nahikoa da!". Nafarroan erraustegiaren proiektua bertan behera uzteko eskatu dute. Erraustegia



Errausketaren kontrako manifestazioarekin milaka pertsonak bat egin zuten.

Nafarroako beste herrietan egin behar zen, baina herritarren eta

udalen ezetzari esker bertan behera gelditu zen. Hortaz, Gobernuak

hondakinak erretzea Portlanden egin nahi izatea salatu du plataformak. Portlandek hartutako erabakia ere kritikatu dute: "gizartearen nahia onartuko zutela esan zuten. Mafiosoen hitzak ziren". Gobernuak erraustegia ekiditeko neurriak hartu beharrean hondakinak erretzeko proiektuaren alde egitea salatu du 3MB-k. Gainera, Portland enpresarekin egindako akordioa eta diru-laguntzak ematea ere kritikatu dute.

Proiektuak aurrera egiten badu 113.000 tona hondakin erreko dira Portlanden. Plataformak salatu duenez gizartearen eta animalien osasunerako arriskutsua da. Hortaz, Nafarroako Gobernuari alternatibak bilatzeko eskatzen dio, izan ere, "pertsonen osasunerako eta ingurugiroarentzako errespetagarria den labegabeko gestioa posiblea da". Portland enpresari gizartearen hitza errespetatzeko eskatu diote.

MOTZEAN**Lan instituzionalean zentratuko da Fdz de Garaialde Lazkano**

Nafarroako Aralarako koordinatzaile izateari utzi dio Asun Fernandez de Garaialde Lazkanok, zuzendaritzako kide izaten jarraituko badu ere. Altsasuarrak arrazoi pertsonalak argudiatu zituen karguari uko egiteko. Eraikundeetan egiten duen lana indartu nahi du erabaki horrekin, izan ere, Fdz de Garaialde Altsasuko zinegotzia eta Nafarroako parlamentaria da. Altsasuarrak utzitako ardura orain arte

koordinatzaile-orde izandako Aritz Romeok hartu du.

Ikurren legea betetzeko eskaera egin dute PSNk eta PPK Olatzagutian

ETA "omentzen" duten kale edo pintadarik dagoen jakitea eskatu dute

Bi alderdiek aurkeztutako mozioan bi eskaera egiten dizkiote Olatzagutiko Udalari. Batetik, zinegotziei eza-gutaraztea herrian ETAko kide den edo izan den pertsonaren bati eskainitako kalerik dagoen. Horrekin bate-

ra, terrorismoa "goretsi edo legedia beste edozein moduan urra" deza-keten pintaketa, kartel edo pankarten erlazioa ere eskatu dute bi alderdiek. Horren bidez, legedia bete eta "herritarrek, politikariak edo enpresariak ikaratzeko" nahi duten esaldiak borratzeko". Bestetik, Olatzagutiko Udalari eskatu diote udaletxean eta bilkura aretoandauden ikurrek legedia betetzen duten errebisatzea.

PPk atez atekoaren kostuaz informatzea eskatu du Etxarrin

Etxarriko PPK Etxarri Aranzoko Uda-

lari eta Sakanako Mankomunitateari eskatu dio atez atekoak eta auzo konpostagailuak izango duten kostua herritarrei jakinaraztea, herri kontsulta egin baino lehen. Etxarriko PPKo zinegotzi Juan Antonio Extremerak ere jakin nahi du ea Sakanako Mankomunitateak mailu guk eskatu behar dituen aipatu gastuei aurre egiteko, eta hala bada, zein kopurukoak izango diren. "Erabakia hartu baino lehen bizilagunek jakin behar dute sistema honek ekarriko dituen gastuak zeintzuk diren, bai udalean eta baita Mankomunitatean ere; gastu hauek nola ordainduko diren eta eza zaborren tasen igoera ekarriko duten".

948 564 275

Guaixe KOMUNIKAZIOA eskaintza

flyer edo eskuorrien eskaintza

300 ALE 80 €

1.000 ALE 170 €

arregui
eraikuntzak

Eraikitako 265m²ko pabilioia + solairu artea eta 1700m²ko lur sail urbanizatu erabilgarria Olaztin

San Juan 52 behea · ALTSASU
T. 948 562 008 F. 948 468 463
www.construccionesarregui.com
admon@construccionesarregui.com

FRONTOIKO TABERNA

Ostiraletan pintxo potea

Plater konbinatuak
Bazkariak eta afariak
enkarguz

948 469 138
ERKUDEN 4 · ALTSASU

TxikiTxo
haurren arropa eta lentzeria

948 46 73 08
Ferialeku 2 · ALTSASU

Redón
lurrindenda eta kosmetika

948 562 452 ALTSASU

BUJANDA
okindegia

Tel.: 948 467 503
Kale Nagusia 31, OLAZTI

SAKANA

Wert legea, informatu aurka egiteko

Espainiako Hezkuntza Ministerioak sustatutako lege berria, Wert legea, zertan datzan azaltzeko herenegun egin zen Sakanan aurreneko bilera. 30 bat pertsona bilduziren Altsasuko Gure Etxea eraikinean. Ibarrean eginen den informazio bilera erronda baten lehena izan da atzokoa. Wert legeaz informatu nahi dituzte sakandarrak, “gurasoen ardura izateaz gain, gizarte osoarena ere badelako hezkuntza”.

Bileran izandako guraso batzuk esan digutenez, Espainiako hezkuntza lege berriak 70. hamarkadako ereduak dakar: “Madriken zentralizatzen da guztia: curriculumak, helburuak, edukiak, ebaluatzeak era... erkidegoek pisua galduz”. Ikastetxeetan botere guztia zuzendariaren esku uzten du lege proposamenak. “eskola kontseilua, gurasoek, irakasleek... ez dute

inolako indarrik. Kontsulta egitea besterik ez dute aurreikusten”.

Finantziarioak

Bileran izandako gurasoek azaldu digutenez, lege berria ezarri gero hezkuntza ziklo bakoitzaren akaberan ikasleek azterketak egin beharko lituzkete. “Ikasleek emaitzen arabera ikastetxeek diru gehiago edo gutxiago jasoko dute. Ikasteari ez dio garrantzirik ematen, notei baizik”. Lege erreformak ikastetxe “eraginkor, errentagarri eta produktiboak” sustatu nahi dituela salatu dute.

Eredu horretan zailtasunak dituzten ikasleak non sartzen diren galdetu dute. “Haiek hartzen dituzten ikastetxeen finantziarioa jaitsi eginen da. Beraz, lehen mailako eskola onak egonen dira eta ez diren beste batzuk”. Diru publi-



Wert legea zer den azaltzeko bilera izan zen herenegun Altsasun.

koa ikastetxe kontzertatueta bukatuko duen beldur dira. Sexu banaketa egiten duten ikastetxeendako finantzabide bat ere ikusi dute lege egitasmoan.

Gurasoak kritiko azaldu dira egungo prestakuntza integrala baztertu eta merkatuaren beha-

rren arabera heziketa ematea aurreikusten duelako legeak. Ikasketak humanistikoaren pisuen galarat aipatu dute, baita ikasleek 14 urterekin bere etorkizuna hautatu beharko dutela. Bestalde, erlijioari lege berriak garrantzi handia ematen diola azaldu digute.

barrutik kanpora

Hartu zure konpromisoa!

2011ko irailean Altsasuko EHEK “nirekin euskaraz” kanpainia burutu zuen; oso harrera ona izan zuen eta asko izan ziren hitzarmena sinatu eta txapa eskuratu zuten altsasuarrak. Festetan euskara gehiago entzun zela uste dugu eta “nirekin euskaraz” zioen txapa blusa, kamiseta etab. etan ikusi zen.

Iazko ekainean “Altsasun euskaraz bizi” argazkia egitera deitu genituen herritarrek eta hortan ere asko izan ziren gurekin bat egin zutenak.

Eskertzekoa da jendearen erantzuna eta oso pozgarria da gure deialdiekin bat egin eta euskaraz bizitzeko nahia adieraztea.

Altsasun euskaraz bizitzeko nahia dugun asko gaudela ikusi dugu baina nahi hutsa ez da nahikoa eta hitzetatik ekintzetara pasatzeko momentua iritsi dela uste dugu.

Oraingoan konpromiso zehatzak eskatzera gatoz.

Hilabete batzuk daramatzagu Altsasuko kaleetatik galdera ezberdinak planteatuz eta aurreko astean “ez zaitez espaloitik jaitsi” ipuina kaleratu genuen.

Ipuinean azaltzen dena Euskal Herrira ekarriz, berdin jokatzeko dugula ikusten dugu, euskaldun asko erdaldunekin topo egitean, espaloitik jaitsi eta erdararen errepidera egiten baitugu salto.

Oraindik erdarak presentzia handia duen herri honetan, egunero espaloitik jaisteko egoera askorekin egiten dugu topo eta zaila egiten zaigu espaloian mantentzea.

Baina alda dezagun egoera, guztiok konpromiso txikiak hartuz espaloian mantentzea geroz eta errazago izango da eta guztiok batera euskararen espaloian ibiliko gara!

Espaloitik jaisten zaren egoerak identifikatu eta egoera horietan espaloian mantentzeko konpromisoa hartu!

Ez zaitez espaloitik jaitsi! Euskaraz Bizi!

Euskal Herrian Euskaraz

AFk sexualitate gaietan gobernuak egindako murrizketak salatu ditu

Altsasuko Feministak (AF) taldeak Nafarroako Gobernuak Izargi zentroan egindako murrizketak salatu ditu. Foru administrazioak arlo horretan darabilen “politika zapaltzaileagatik” kezka azaltzearekin batera, dei egin diete sakandarrari etaa erakundeei “UPNren politika eta gizarte murrizketak berri hori salatzeko”. Feministek “kolektiboki borrokatzen jarraitzeko beharra” berretsi dute, “lehenago ere gure borroka bidez lortu genituen eskubideetarikoa bat bera ere ez galtzeko”.



Izargiren egoera batean baino gehiagotan salatu da.

Etxarri Aranazko osasun etxean zabaldu zen Izargi zentroa 1996an. AF-tik diotenez hezkuntza-

ren eta prebentzioaren gainetik gobernu berehala laguntza alor hutsari lehentasuna ematen hasi

zen. 1.998an, UPN gobernuarekin batera, “sexualitatea ulertzeko modu murriztua eta mugatua” ezarri zuela adierazi zuen. Izargi gizarte guztirako zentroa izatetik emakumeendako zentroa izatera pasaz.

Murrizketen “soka lasterra”

Lehenik Gazte Programa kendu zuten. eta atzetik: administrazio lan-gileei ez die sexualitatearen gaineko prestakuntzarik eman; azterketaginekologikoak urtero egin beharrean hiru urtetik behin egiten dira; sexu hezitzaileen ordezkotasun hezitzaileak jarri zituzten; emagin baten lanaldia murriztu zioten eta Ginekologia Zerbitzua ez da egunerokoa, eta ez dute ordezkorik jarritzen; Gozamenez moztu dute...

Gozamenez programan zer antolatu erabaki nahi duzu?

Gozamenez sexualitateari eta gazteriari buruzko programa bat da, 14 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzendua. Sexualitatea gogoz eta poztasunez bizitzea bulkatu nahi da. Hainbat urtetan Sakanan garatu da Gozamenez, hamaika ekital-

di antolatuz: tailerrak, graffitiak, ikastaroak, ur festak, dantza tailerrak, antzerkiak, afari erotikoa... Aurtengo Gozamenez programa antolatzeke gazteek zer nahi duten jakin nahi dute antolatzaileek; gazteen ekarpenak jaso nahi dituzte.

Proposamenak telefonoz edo tuntu bidez

“Parte hartu nahi duzue eta Gozamenez aurtengo zer egin erabaki? Ziur gaude ideia, proposamen eta iradokizun asko dituzuela egiteko. Hala bada, hitz egin Etxarri

Aranazko Emakume Arreta Zentroko Feli Sanchezekin (948 461 579) edo tuntu bidez proposamenak bidali (Gozamenez Sakana)” adierazi dute Gozamenez programaren Sakanako Taldekoek.

IHESLARIAK ETXERA!!

BILTOKI taberna

tel. 948 467 876 Altsasu

Josune Marauri

Fisioterapeuta

Postura zuzenketak
Masajeak eta taldeak

638 484 780

josunemauri@gmail.com
www.reordenaciondelapostura.com

PORTUKO okindegia

Ogiaren artisauak

Altsasu: 948 563 822
Etxarri Aranatz: 948 460 988
Urdiain: 948 563 763

GuaiXe
KOMUNIKAZIOA

• • •





Guaixeren gehigarria • 2013-03-22

Etxe apainketa eta eraikuntza



Xukadera-berogailuak

Kanpoan hotz egiten duenean, geure burua berotzeko bainu bero bat har dezakegu. Arazoa, ordea, irteeran topatuko dugu, toaila hotz batekin sikatu behar dugunean. Arazo horrek, dagoeneko, badu soluziorik: xukadera-berogailua, hain zuzen. Munduko asmakizun epelene-takoari esker dutxako irteera goxatu ahal izango dugu. Azken urteotan geroz eta gehiago jartzen dira; izan ere, instalatzeko errazak dira eta, gela berotzeaz gain, toailak sikatzeko oso aproposak dira eta espazio gutxi okupatzen dute.

Leihorik ez duen **bainugela dekoratzeko aholkuak**

Bainugelan leihorik ez izatea maiz gertatzen da; etxe asko eta askotan ez da leihoa paratzeko aukerarik egoten. Beraz, horrelako egoera baten aurrean, zer egin dezakegu?

Leihorik ez duen bainugelan aireztapen eta argi falta izaten da, maiz. Horiek horrela, arazo hori duen gela dekoratzeko zenbait

aholku topatuko dituzu orrialde honetan.

Lehenik eta behin, konpondu beharreko lehenengo arazoa estutasun eta klaustrofobiarena da. Horretarako, hoberena litza-teke argi puntu nagusi bat sortzea, leihorik ez dugula ahazteko. Helburu horretan, margolanen bat, eskulturaren bat edo

dekorazio objekturen bat lagungarri izan daiteke. Bestela, forma leun eta errazeko altzarien bitartez ere konpon dezakegu arazo hori. Argiztapen naturalik ez duenez, txikitasun eta iluntasun sententzia eman dezake leihorik ez duen bainugelak. Hori dela eta, kontsumo baxuko argi zuria erabiltzea

gomendatzen dugu, tonu hotzek argiztapen gehiago ematen dutelako. Horrez gain, hormak ere argiak izatea lagungarri izango da. Aukeran, zuriak, argitasun eta zabaltasun sententzia emateko.

Aireztapenaren arazoa saihesteko, ordea, ez dago gauza gehiegi egiterik. Egin daitekeen gauza

bakarrenetako bat da usain ona ematen duen dekorazioa jartzea, hala nola, xaboi usaintsuak, lore lehorrak, olio usaintsuak edo aire-freskagarriak.

Bukatzeko, beste aholku bat: egokia da ispilu bat edo bi jartzea komunean, eta kristalezko manpara dutxan jartzea, zabaltasun sententzia handiagoa izateko.

BAINUETARAKO ALTZARIRIK BERRIENAK

Galartxa, S.L.

**iturgintza
berogintza
gasa
komuneko altzariak**

Tel.: 948 460 027 • Faxa: 948 460 953 • galartxasl@terra.es
Bulegoa eta erakusketa: Utzubar Industrialdea 31839 ARBIZU

2



Hainbat zoru
aukeran

sukaldeak

Gure sukaldearen estiloaren arabera zoru bat edo beste bat aukeratuko dugu. Garbitasuna eta iraunkortasunaz gain, osaketa, kolorea eta materiala hartu beharko ditugu kontuan.

Baserri itxurako sukalde bateko, adibidez, zorurik onenak harri naturalezkoak edo zurezkoak dira, kolore apalekoak, gainerako altzariak nabarmen-tzeko.

Barroko itxurako sukalde batean, ordea, kolore iluneko harlauzak mosaikoan jarrita ongi geldituko dira, harrizkoak edo portzelanazkoak.

Sukalde minimalista batean, berriz, hormigoi zurizko zoru matea oso ongi geldituko da, sukaldeko altzariekin bat egiten duen tonuan.

salmen etxea

sukaldeak eta bainugelak


zeramika

txorrotak

tximiniak

horma-armairuak

*profesionalak eraberritze
eta proiektuetan*



T. 948 564 220 • Isasia industrialdea • ALTSASU

www.salmenetxea.com



Armairuetarako material egokia aukeratzen

Sukaldea etxebizitzaren txokorik garrantzitsua da. Izan ere, osasuntsu eta bizirik mantentzen gaituen janaria bertan prestatzen dugu. Hori dela eta, biltegiatzeko aukera ematea ezinbesteko ezaugarria da sukaldeko armairu on batendako. Armairu egoki baten aukeraketak espazioa eta funtzionaltasuna eskainiko digu, gure sukaldearekin gustura egoteko ezinbesteko baldintzak.

Edukiera, erresistentzia eta mantenua dira armairu baten ezaugarriak. Ezaugarri horietako bakoitzari eman nahi diogun garrantziaren arabera material bat edo bestea aukeratu dugu.

Zureko armairua: zurak goxotasuna emango dio sukaldeari, baita estilo klasiko xamarra ere.

Altzairu herdoilezinezko armairuak: armairu mota honek kontrako sentsazioa sortuko digu, itxura moderno eta iraunkorra.

Eragozpen bat badute, erraz murratzen direla.

Armairu laminatuak: gehien erabiltzen den dekorazio mota da egun. Prezio aldetik garestiagoak dira, baina prezio eta kalitatearen artean merezi duen aukeraketa ona da. Zenbait ekoizleek eskaintza onak egiten dituzte, edozein poltikotarako aproposak.

Armairu lakatuak: sukalderako propio egindakoak dira, eta oso aproposak dira tenperatura bero, orban eta hezetasunaren aurrean. Prezioa da desabantailarik handiena. Joko gehien eman dezakeen materiala da.

Kristala beste material batekin uztartuta erabiltzen da, goian aipaturiko lau materialetako edozein batera uztartuz diseinu eta giro atsegina lor ditzakegu. Material hauskorra da, eta erraz zikitzen da, beraz, tentuz aukeratu beharko dugu non jarri.



Belar usaintsuekin dekora ezazu sukaldea

Sukaldea dekoratzeko osagai natural eta erabilienak belar eta landare usaintsuak dira. Janaria prestatzeko erabili ditzakegu; gainera, moztu berritan zapore ezin hobe emango diote gure pertzari. Horrez gain, gure sukaldea apainduko dute eta natur zati bat izango dugu eskura.

Oreganoa, ezkaia eta erromeroa landare zintzilikariak dira. Hori dela eta, goiko apaletan koka ditzakegu, eta beherantz hazten utzi. Ideia horrekin oso txoko polita egin dezakegu etxeko sukaldean. Ez ahaztu, polit eta sendo hazteko leihoen ondoan kokatu beharko ditugula.

Belar usaintsuen bitartez dekorazio naturala, usain goxoa eta gure plateretarako zapore ona lortuko ditugu; horrez gain, etxe barruko landareek egiten duten lana egingo dute: airea berritu eta gelan lasaitasun eta bake sentsazioa zabaltu, bizi kalitatea hobetzeko guztiz beharrezkoak.



Interesik gabeko urte beterako **FINANTZAKETA**

GANUZA 
ANAIK

948 460 203
Etxarriko Industrialdea · ETXARRI ARANATZ



Nola dekoratu logela txikiak



Egungo logelak askotan txikiak izaten dira, baina horietarako ere hamaika soluzio topatuko ditugu zabaltasun itxura emateko. Helburua da ahalik eta leku gehien egitea askatasunez mugitu ahal izateko, eta eroso sentitzeko.

Altzarien kokapena oso garrantzitsua da. Ohearen orientazioa eta leihotik sartzen den argia kon-

tuan hartu behar ditugu. Erabile-
ra anitza duten altzariak espazioa hobeki planifikatzen lagunduko digute.

Altzarien koloreari dagokionez, aukerarik onena da kolore argiak erabiltzea; batez ere, argiztapen handirik ez badago.

Ohatzea ezinbesteko elementua da logela batean, eta, tamalez, espa-

zio asko okupatzen du. Hala eta guztiz ere, espazioa irabazteko kanape bat jartzea da soluziorik onena, edo kaxoi batzuk, edozein gauza gorde ahal izateko.

Antolakuntza eta ordena oso garrantzitsuak dira espazio txikiak dekoratzeko orduan. Hobere-
na da neurritik egindako altzariak jartzea.



Birendako logela prestatzeko hainbat ideia

Bi anai-arrebendako logelan bi idazmahai jartzeko garaian espazioa ongi planifikatu behar dugu. Normalena izango da ohe biki, habi-oheak edo literak paratzea. Espazioa irabazteko beste aukera bat da ohe eraisgarriak paratzea. Argazkian ikus daitekeen bezala, aukera horrekin espazio libre asko geldituko zaigu eta bi idazmahai jartzeko modua izango dugu.



HOSTO

GORRI
altzariak

948 460 359
Zugarrata 7 • eixari arandiz

GORTINA, ALTZARI eta
OSAGARRIen denda



Carpintería
SALGADO
aroztegia

ZURGINTZA
EGURREZKO ATEAK
HORMA-ARMAIRUAK
SUKALDEKO ALTZARIAK

948 46 74 57 - 687 42 52 85/86 - Isasia Industrialdea 86 - Altsasu



ATENZIO
PERSONALIZATUA

Portuko 19 OLAZTI
948 562 262

AGIRRE
altzariak eta aroztegia

ETXARRI KOMERTZIALA altzariak eta sukaldeak



Etxarri Komertzialak bere bezeroei
gasolina/ gasolio txakeak
oparitzen dizkie!



Finantzaketa zure neurritik

www.comercialetxarri.com

Beasaingo errepidea
Etxarri Aranatz
948 460 021



Segurtasuna, lapurren bisitak ahalik eta gehien oztopatzea helburu

Egun lapurreta kopurua ugaritzen ari denez, horiek eragotzi eta zailtzeko neurri guztiak hartzea komeni izaten da. Garrantzitsua da azaltzea etxeko lapurretak ez direla beti opor garaian gertatzen; lanean edo aisialdian ibili eta gero etxera itzultzean ere izan dezakegu sorpresa desatseginik.

Hori dela eta, hobe da arreta osoa jartzea. Hona hemen zenbait aholku berehala itzultzeko irteten garenerako zein oporretara goazenerako.

Zaindu etxeko ataria. Eragotzi ezezagunak sartzea.

- Ez erakutsi aberastasunik. Ez eman lapurrei zure etxea helburu ona dela pentsatzeko arrazoirik.
- Kontu izan etxeko zerbitzua kontratatzean. Eskatu erreferentziak eta zaindu langilearen portaera lehen egunetan.
- Bakarrik bizi bazara ere, jarri izen bat baino gehiago gutunontziko txartelean.
- Itxi leihoak etxetik irteten zaren bakoitzean, ordu erdiz alde egin behar baduzu ere.
- Beheko solairu batean bizi bazara, jarri burdin-hesiak kalera edo alboko eraikinetara ematen duten leihoetan. Gogorrak izan behar dute eta 12 zentimetro baino tarte txikiagokoak. Familia bakarreko etxe batean bizi bazara, hartu neurri horiek zulo guztietan (aireztatzeko zuloe-tan e. a.).
- Giltzetan ez jarri inolako daturik, eta kontuz ibili kopiai ateratzen dituzunean.
- Aldatu sarraila honako kasu hauetan: etxebizitza berri batean bizitzera sartzen zarenean, aurrez alokaturik egon den etxe bat alokairuan hartzean, etxea berri badiuzu eta langileren batek giltzak eskura izan baditu, eta giltzak galtzen dituzun guztietan.
- Jarri atean behatxulo panoramikoa, atea jotzen duen pertsona osorik ikusi ahal izateko.
- Etxeko atea blindatua baldin



bada, egiaztatu markoari eusten dioten besoak horman ongi sartuta daudela. Blindatua ez baldin bada, gutxienez itxeko bi puntu izan behar ditu, ez du tarterik egon behar atetik lurrera, eta giltzarriek altzairuzko pibotez eta metalzko angeluz indarturik egon behar dute.

Oporretan, aparteko neurriak:

- Ez esan jende aurrean oporretara zoazunik.
- Ez utzi etxea hutsik dagoela adierazten duen aztarnarik. Eskatu bizilagunen bati gutunak jaso ditzala. Utzi norbaiti telefono zenbaki bat, zerbait gertatuz gero kontaktatu ahal izateko.
- Egiaztatu etxerako sarrera guztiak itxita geratzen direla, patioetara ematen duten leihoak barne.
- Ez utzi giltza-jokorik inon ezkutatuta, ez eta noiz itzuliko zaren dioen oharrik ere.
- Jarri tenporizagailu bat ordu desberdinetan argia edo irratia piztu eta itzali ditzan, etxean

norbait dagoen itxura emateko.

- Desbideratu deiak. Etxean inor ez dagoela egiaztatze deitzen baldin badute ere, beti erantzungo du norbaitek.
- Jokatu elkartasunez eta deitu poliziarri bizilagunen baten etxean gauza arrarorik sumatzen baduzu.
- Markatu gauza baliotsuak, lapurtzen badizkizute ezagutu ahal izateko. Idatzi marka, modeloa eta serie zenbakia eta atera argazkiak. Dirua eta gauza baliotsu txikiak (bitxiak) gorde banketxeko segurtasun kutxan.
- Alarma zentral batekin konektaturiko segurtasun sistema bat kontratatzen baduzu, egiaztatu enpresa hori Poliziako Zuzendaritzako Enpresen Erregistroan izena emanda dagoela.
- Jakin ezazu zigor legalak daudela beharrezkoa ez denean segurtasun indarrak mugitzea eragiten duten alarma faltsuendako, eta zigor horiek ordaintzea segurtasun sistemak instalatuta duten pertsonen kontu izaten dela.

Segurtasun sistemak

ALARMA SINPLEAK. Sistema akustiko soila, balizko lapurrak belhurtzea helburu duena. Ez dago beste inora konektaturik. Eragozpenak: zarata atera besterik ez du egiten, eta oso erraz neutraliza daitezke, agerian egoten dira-eta.

DETEKTAGAILU BOLUMETRIKOAK. Uhin luzerak zehazturiko eremuaren barruan gertatzen den edozein gorputz edo objektu mugimendua antzematen dute. Eragozpenak: oso erraz salto egiten dutenez, alarma faltsuak eragiten dituzte.

INFRAGORRI BIDEZKO DETEKTAGAILUAK. Inguruan gertatzen diren aldaketa termikoak aztertzen dituzte. Gorputzeko 37 graduek salatzen dute kanpotarra. Tresnarik modernoek aparailu bakarrean biltzen dituzte detektagailu bolumetrikoak eta infragorriak.

ULTRASOINU BIDEZKO DETEKTAGAILUAK. Soinu arraroak antzematen dituzte, adibidez, kristalak hausten direnekoa eta antzekoak, eta leihoetan jartzen dira. Eragozpenak: sarritan huts egiten dute, eta haur baten negarrarekin ere salto egiten dute.

KONTAKTU MAGNETIKOAK. Ate eta leihoetarako. Eremu magnetiko bat sortzen duten plaka imantatuak dira, norbait leihoa irekitzen saiatzen denean salto egiten dutenak. Eragozpenak: zati bien artean ezer sartzea ezinezkoa denean bakarrik dira eraginkorrak.



Diru gutxiagorekin, etxean **bero-bero** egoteko sistema

Lacunza Kalor Group enpresan 140 berogailu modelo baino gehiago ekoizten dituzte: airea berotzen duten sukalde eta tximinia modelo moderno eta klasikoak, eta ura berotzen duten berogailu edo kalefaktorak.

Azken urteotan arrakasta handia izan dute berogailuek, etxeko gela bakar bat berotzeaz gain, etxe osoa berotzeko gai direlako, baita etxeko ur bero sanitarioa ere. Paila baten bitartez berogailuko beroarekin berotzen da ura eta etxeko erradiadoreen sistemara bideratzen da.

Egurra eta pelletak dira erabiltzen dituzten erregaiak, egungo erregai-rik merkeenak. Eta, abagune horretaz baliatuta, Lacunza Kalor Group enpresa hazi egin da azken krisi urteotan. Itxaropenaz eta kezkaz eman dizkigute azalpenak Jose Julian Garziandia enpresaren kudeatzaileak eta Xabier Ramirez de Alda komertzialak.



Xabier Ramirez de Alda, komertziala, eta Jose Julian Garziandia, kudeatzailea.

Arrakasta handia izaten ari den produktua ekoizten duzue.

Noiztik?

Krisia hasi aurretik berogailu gutxi jartzen ziren. Etxeak berotzeko gasa, elektrizitatea eta gasolioa erabiltzen zen gehien bat. Krisiaren eraginez, ordea, lehen-gai horien prezioa asko garestitu da; eta etxe asko eta askotako ekonomia asko txartu da. Hori dela eta, merkatu-aukera ezin hobea gurela konturatu ginen. Zergatik? Egur edo pellet tximinia berogailu baten bitartez etxea berotzea dezente merkeago delako. Gu izan ginen Europan egur-berogailuen katalogo osatua argitaratu genuen lehenak. Bestalde, sukalde eta tximinien eskaintza zabala prestatu genuen, hainbat potentzietarako. Azken urtean tximinia eta sukalderako berogailu asko saldu dugu. Sakanan asko eta asko.

Non dago zuen merkatua?

Ekoizten dugun %80a Espainian saltzen dugu, gainerakoa, esportatzen dugu: Frantzia, Italia, Portugal, Ingalaterra, Alemania, Txi-

pre, Polonia, Errusia, Uruguai... AEBn eta Kanadan sartzeko gestioak egiten ari gara. Gure asmoa da arlo internazionala gehiago lantzea, baina ez da erraza. Lacunzak ekoizten dituen produktu guztiek CE marka dute, hau da, Europako arauak jarraiki daude eginak gure produktuak.

Zein da arrakastaren arrazoia?

Gurean egurra dohain edo merke eskuratzeko aukera dago. Hori dela eta, diru gutxiarekin ur sanitarioa berotu eta etxe guztia berotzeko aukera ematen dizu.

Basoen kudeaketa egitea eskatzen du sistema honek.

Publikoa den basoa hobeki kudeatzen da. Nafarroan, esaterako, hazi egin izan da basoa urtetik urtera. Gaur egun, lehen ez bezala, Sakanan egurretarako ateratzen dira loteak. Beraz, hori ongi kudeatu beharra dago. Politika onak behar ditugu: biomasa eta egurretarako moztu ahal basoak oihadu ahal izateko.

Berogailuak nolako etxetarako dira egokiak?

Gure produktu gehienak bizitza bateko etxetarako pentsatuak daude. Keetarako tximinia behar du eta, etxebizitza bloke batean egin daitekeen arren, zailagoa da tximinia jartzea. Familia bakarretarako, berriz, oso produktu egokia da gurea. Izan ere, tximinia dekorazio polita da egongelarako, baina, horrezaz gain, etxe osoa berotzeko balia dezakezu.

Instalazioa zaila da?

Airea berotzen duen ohiko berogailua jartzea errazagoa da, igeltsero batek egin dezake. Ura berotzeko berogailua jartzeko, berriz, instalatzaile bat beharko dugu halaberrez, berogailuak instalatzeko titulua duen iturgin bat, segurtasun neurri guztiekin jarri beharra dago-eta. Iturginaz gain, igeltsero baten beharra izango dugu keen hustubiderako.

Zenbat egunetan instala dezakegu?

Aire berokoa: egun bat, edo egun bat eta erdian. Ur berokoa, berriz, 2-3 egunetan.

Etxean leku asko behar da instalaziorako?

Gure sukalde eta tximiniak etxebizitzako dekorazioaren parte dira. Dauden gela berotzen dute eta, horretaz gain, sua ikusi eta etxe osoa berotuko digute. Hainbat neurri eta soluzio eskaintzen ditugu.

Zenbateko aurrekontua behar dugu berogailu bat instalatzeko?

Berogailuaren prezioa 1.800-3.500 euro bitartean dabil, gutxi gorabehera; instalazioa, berriz, 3.000 euro inguru. Batzuetan gerta daiteke instalazioa tresna baino garestiagoa izatea, baina ezinbestekoa da ongi egitea arazoak saihestu nahi baditugu.

Non ekoizten duzue?

Bi planta ditugu: bat Altsasun eta bestea –orain dela 2 urte mustu genuena– Lakuntzan. Biek antzeko neurria dute: 5.700

m². Administrazioa, logistika, asistentzia tekniko, erosketak, hornikuntza, kalitatea eta komertzialen departamentuak Altsasun daude; Lakuntzan, berriz, produktuen garapena eta I+G (lorketa eta Garapena) departamentuak ditugu, baita kutxa gotorren linea berria garatzen ari den taldea ere.

Zein da I+G departamentuaren egitekoa?

Ekoizten ditugun modelo guztiak gure departamentuak sortutakoak dira. Bost injineruz osatuta dago I+G departamentua. Berezko laborategia dugu, eta bertan probatzen da diseinatzeko guztia merkaturatu baino lehen. Lacunzako departamenturik sendoa da.

Zer materialekin ekoizten duzue?

Altsasun fundizioko materialarekin ekoizten diren sukalde, berogailu eta tximiniak egiten ditugu; Lakuntzan, berriz, altzaruzko txapaz ekoizten diren berogailu eta tximiniak. Munduko



fundizio ekoizle onenei erosten diegu lehengaia.

Nola zabiltzate garai zail haue- tan?

Orain arte oso ongi joan izan gara, 2009an hazi ginen, 2010ean ere, baita 2011n eta 2012an ere. Azken lau urteotan salmentak handitu ditugu, baina irabaziak txikitu dira. Gauzak geroz eta zailago daude: bezeroen presioa handia da, konpetentzia gogorra da... Hala ere, arazorik handiena da kontsumoa gelditzen ari dela, eta, horren ondorioz, gure bezeroei bukatzen ari zaizkiela zituzten errekurso ekonomikoak eta ordaintzeko arazoak geroz eta nabariagoak direla. Egoera konplikutzen ari da eta, dirudienez, gehiago zailduko da.

Zenbat langile zarete Lacunza Kalor Group-en?

Gure jarduera urtaroen arabera aldatzen da. Uztailetik abendura gehiago saltzen dugu. Abendura arte 88 lagun aritu gara. Orain, berriz, 70.

Zeintzuk dira etorkizunerako dituzuen asmoak?

Hurrengo urteetara begira gure asmoa da I+G-aren bitartez produktua hobetzen eta osatzen segitzea; teknologia hobea sartuz eta berrikuntzak eginez. Baina horretaz gain, ezin ukituzkoak diren lau balore hauek txertatzen hasiko gara: prestakuntza, zerbitzua, komunikazioa eta asistentzia teknikoak. Estatuan asistentzia teknikoak emateko sistema

Ekoizten ditugun modelo guztiak gure departamentuak sortutakoak dira. Bost injineruz osatuta dago I+G departamentua. Berezko laborategia dugu, eta bertan probatzen da diseinatzen dugun guztia merkaturatu baino lehen. Lacunzako departamenturik sendoena da



abiatzen ari gara. Gure asmoa da produktua erosi duen pertsona batek bere inguruan produktua ongi ezagutzen duen teknikoak izatea. Bestetik, prestakuntza plan batzuk garatzen ari gara, gure bezero eta beren teknikoei eta gure agente komertzialei formazioa emateko. Hirugarrenik, komunikazio plan bat egiten ari gara bezero, ekoizle eta saltzailearen arteko komunikazioa hobetzeko. Web orriaren bitartez bezero guztien eskura jarriko dugu sistema bat jakiteko etxearen ezaugarrien arabera zein berogailu modelo aukeratu. Aurrera egin nahi badugu ezinbestekoa deritzogu eskaintzen dugun zerbitzua hobetzea. Buru-belarri ari gara horretan.

Banatzaile ofizialak:



salmen etxea
estudio de cocina y baño



Lacunza Kalor Group-eko departamenturik sendoena I+G departamentua da. Gune hori Lakuntzan eraiki duten fabrikari dago.

LACUNZA KALOR GROUP

segurtasun kutxen ekoizpena
egurretarako sukalde, berogailu eta tximinien ekoizpena



LAKUNTZA - Sarrarte Poligonoa z/g

ALTSASU - Ibarrea Poligonoa z/g



Angel Mendieta: «Erosotasunean eta bizi kalitatean asko irabazi dugu»

Olaztiko bere etxean pellet berogailua duen lakuntzarra da Angel Mendieta. Bere ahotik jaso dugu berogailu sistema aldatzearen abantailak: aurten, erregaletan, erdia gastatuko dutela aurreikusten du Mendieta.

Orain arte zer nolako berokuntza sistema zeneukan zure etxean?

Gasoi galdara bat neukan mar txan. Pellet berogailua jarri arren, gasolioarena mantendu dut ur beroarendako.

Zergatik aldatu duzu?

Hainbat arrazoiengatik, lehena, dirua aurrezteagatik. Orain arte 3.000 euro gastatzen nituen urtean, eta honekin aurreikusten dut erdia izango dela. Gainera, erosotasunean eta bizi-kalitatean asko irabazi dugu.

ergatik pellet berogailua edo termoberogailua?

Behoko sua ez neukan lehendik eta, gainera, pisura egurra igo-tzea ez zitzaidan modurik egokiena iruditzen. Pelleta, berriz, edozeinek igo dezake, 15 Kg-ko zakuak direlako. Gainera, iruditzen zait aukera garbiagoa dela.

Zein da airezko pellet berogailua eta termoberogailu baten arteko aldea?

Airezko pellet berogailuak ez du instalazio handirik behar, zuzenean hodi bat ateratzen da kanpora, ez dago etxeko erradiadoreetara konektaturik, horregatik ere, merkeagoa izaten da. Bestea, aldiz, erradiadore instalaziora konektatuta dago. Kalefaktora garestiagoa da eta instalazioa be-

har duelako: gremioen lana behar denez, horrek ere produktua garestitzen du. Beroaren %75, erradiadoreetara darama; eta beste %25, gelan bertan botatzen du.

Zuk jarri duzun hau garestiena da?

Bai, 4.000 euro inguru balio du, baina txikiagoak badira –merkeagoak, noski–.

Zenbat zaku behar ditu egunean?

Egunean gureari zaku bat sartzen diogu, eguna oso hotza bada agian pixka bat gehiago, baina normalean batekin nahikoa izaten da, kalefakzioa hamar ordu-tan pizturik egoteko. Guk etxean ohitura hartu dugu botatzen dugun zaku bakoitza zerrenda batean idazteko, horrela, gastua kontrolatzen dugu.

Etorkizunean pentsatzen duzu errentagarriagoa izango da?

Baietz uste dut. Aurtengoa 1.500 euroekin egingo dudala uste dut, eta hori aurreko urteetan gastatutakoaren erdia da.

Zer nolako mantenua behar du pellet berogailu batek?

Astean bitan garbitzen dugu, aspiragailu berezi batekin. 10 minutuan prest dago. Hilabeteetan behin 20 bat minutu ematen ditugu garbitzen, beste iragazki batzuk garbitu behar direlako. Man-



Astean bitan garbitzen dugu, aspiragailu berezi batekin. 10 minutuan prest dago.



T. 948 461 135 F. 948 461 502 www.eseki.com
Aritzalko Indus. 21 Etxarri Arantz eseki@eseki.com



608 570 357
info@egurdian.com
Barrenkalde, 13
31810 Urdiain · Nafarroa



Neguan bero egoteko hainbat aukera

Larragak tximiniak banatu eta ekoizten ditu Lakuntzan. Hango jarduerari buruzko azalpenak jaso ditugu David Larragaren eskutik. Chimeneas Larraga familia enpresa da. Orain dela 20 urte baino gehiago sortu zen. Orain tekniko moduan dabil lanean beraiekin Inaxio Beltza.



Pellet pikor bakoitza zuhaitz adarren soberakinez eginda dago edo zurgindegietako lanen soberakinez. Zerrauts prentsaturak eta lehorra izaten da, kolarik gabekoa, garbia.

tenu orokarrari dagokionez, urtean behin egin behar da, gailu nontzekoekin bezala.

Sistema honek ingurugiroa errespetatzen du?

Zalantzarik gabe, birtziklatzean datzalako. Pellet pikor bakoitza zuhaitz adarren soberakinez eginda dago edo zurgindegietako lanen soberakinez. Zerrauts prentsaturak eta lehorra izaten da, kolarik gabekoa, garbia.

Etxean kokatzeko leku handia behar da?

Bada, egia esan behar badizut, ez: etxeke edozein txokotan kokatu daiteke. Aukeratzeko hainbat kolore daude. Guk, adibidez, jantokiko txoko batean jarri dugu, eta leku handirik ez du hartzen.

Zenbat denbora behar da pellet berogailua jartzeko?

Egun batekin nahikoa izaten da, jartzen erraza baita. Lanak egiteko kisuagilea eta iturgina behar dira, eta entxufea behar da gertu, bi fasetakoa, normala. Berogailua erdi muntatuta heldu da, eta plano batekin egin daiteke. Guk Salmenen erosi genuen. Haiengana bazoaz haiek jartzen dizkizute beharrezko gremioak. Lehenago haiek doaz etxera eta lekuri proposena aukeratzen laguntzen dizute.

Jendeari aholkatuko zenioke?

Etxean oso pozik gaude. Duela lau hilabete jarri genuen eta erosotasunean irabazi egin dugu. Orain etxeaz gehiago gozatzeko dugu, benetan inbertsio ona egin dugu.



Zer da zuek eskaintzen duzue-na?

Produktu batzuk fabrikatzen ditugu eta beste batzuk, berriz, banatu Guk diseinatutako eta ekoiztutako beheko suak edo tximiniak ere eskaintzen ditugu. Bi motatakoak dira: batzuk, tximinia dagoen gela berotzeko aproposak dira airea berotzen dutelako; beste batzuk, berriz, ur zirkuitua dute eta erradiadore eta zoru erradiatzaileak lotuak daude. Azken horretan bi poten-

tzia ditugu: etxe handietarako edo etxe txikietarako. Baditugu tximinia batzuk elkarre edo txokoetarako aproposak direnak, goian labea dutelako. Horrez gain, barbakook ere ekoizten ditugu: neurri guztietakoak. Banatu, berriz, Hergom, Berotu eta beste batzuren sukalde ekonomikoak, estufak, tximiniak, insertableak, egurra eta pelleta erretzen dutenak.

Zuen merkatua non dago?

Euskal Herrian gehien bat: Euskal Autonomia Erkidegoko hiru probintzietan bezeroak ditugu, baita Nafarroan ere. Eta, Iparraldean ere bezeroen bat edo beste etortzen da. Bezeroek gure produktuen kalitatearen berri ematen diete euren senide eta lagunei eta ahoz ahokoak ongi funtzionatzeko du. Gure eskaintzaren berri emateko ferietara abiatzen gara maiz.

Etxarri Aranatz ETXEBIZITZA LIBREAK SALGAI
garajea eta trastelekuarekin **GARAJEEN ESKAINTZA**

eskatu informazioa konpromisorik gabe

LEGARBE E
ERAIKUNTZAK S.L.

Arluzape kalea 2, behea
ETXARRI ARANATZ

T. 629 420 515 - 948 461 075



CHIMENEAS
LARRAGA

Mikel Arregi 40 behea
LAKUNTZA

T.F. 948 464 801

www.chimeneaslarraga.com

chimeneaslarraga@yahoo.es





Sakana Inmobiliariako arduradunak: Olga Berastegi eta Iñigo Goikoetxea

«Alokairuak gehiago dira gaur egun»

Zer da gaur egun eskaintza gehien duena: alokairuak edo erosketak?

Alokairuak gehiago dira gaur egun. Lan kontua gaizki dagoe-nez, jendea erosteko beldurrez dago.

Printzipioz erosteko aukera oso ona da prezioak jaitsi egin direlako, eta oso aukera onak daudelako; erosteko gogoia eta beharra dituen jendea falta da, ordea. Ez dago merkaturik.

Zein da zuen bezeroen perfila: alokatzen dutenena adibidez?

Herrietako edo Altsasu bertako gazte jendea, elkarrekin pisua alokatzeko elkartzen direnak edo, adineko jendea, etxean igogailurik ez eta laugarren pisu batean bizi direnak, adibidez. Horiek pisu txiki bat bilatzen dute, igogailuarekin. Beste perfil bat da kanpoko jendearena, lanarengatik etorri dena. Edo Sakanako bi muturretan lan egiten duten bikoteak, erdigunea bizitokia aukeratzen dutenak. Banatu diren bikoteetan etxetik irteten dena alokairuan sartzen da ere bai. Azkenaldi honetan izaten ari garen beste bezero mota bat itxi diren enpresetako langileak dira: nabe industrialen bila dabilta, lana izan dezaketela ikusi eta elkarrekin kooperatiba bat irekitzeko asmoz elkartzen direnak, esaterako.

Erosleetan zein da perfila? Jende heldua –igogailua behar

duena— edo bikote gazteak elkarrekin urteak daramatzatenak, ezkontzera doazenak eta gurasoen laguntza dutenak.

Momentu honetan zein da gehien saltzen den etxe mota? Pisuak. Igogailua dutenak batez ere.

Nola eragiten du krisiak zuen sektorean?

Bete-betea, gainera, gure sektorea izan da zigortuena hasi-hasieratik. Egunen batean krisi honetatik ateratzen bagara, azkenak izango gara ateratzen. Alokairuen atari hori, behinik behin, badugu, eta horrekin mantentzea espero dugu. Sakana Inmobiliarian, etxeok lan egiten dugunez, horrek segitzeko aukera ematen digu; langileen nominak pagatu beharko bagenitu ezinezkoa litzateke.

Zer aldatu da? Zer neurri hartzen ari zarete?

Guk uste dugu formula batzuk aurkitu behar direla jendeari erraztasunak emateko. Altsasu erdigunean dugun promozioan, adibidez, etxebizitzak jantzen ari gara. Gure apustua da pisu guztiak barrutik bukatzea, sukaldeko altzariak eta guzti. Kasu horretan, erosten duenak, hipoteka guztirako eskatuko du, eta altzariengatik ordainduko duen BEZ ez da %21 izango, %10 baizik. Gure asmoa da erraztasunak ematea. Zerbait mugitzen hasi da, gainera.

Bestalde, gaurko egunean pisua saldu nahi duen norbaitek, guk ematen diogun informazioarekin, ideia aldatu eta alokairuan jartzen du maiz. Aukera horrekin etxebizitza ez da geldirik gelditzen, beste irtenbide bat ematen zaio.

Prezioen azken urteotako joera nolakoa izan da?

Saltzailearen egoera begiratu behar da, horrek markatzen baitu prezioa. Saltzeko premia handia badu, gehiago mugituko da prezioa. Presarik ez badu, berriz, ez da horrenbeste mugituko. Beste faktore bat da noiz erosi zuen etxebizitza jabeak. Saltzaileak 2000. urtea baino lehen erosi bazuen, tarte handia izango du prezioa jaisteko. 20 milioitan erosi ziren pisuak, dena puri-purian zegoen garaian, 40 milioi balio izatera iritsi ziren. Orain prezioa jaitsi da, baina 20 milioi baino gehiago balio dute. Beraz, jabeak ordaindutakoa baino gehiago eska dezake, eta, saltzeko beharra badauka, egin dezake. Beste gauza bat da pisua 2006an erosi baldin bazuen 40 milioi ordainduta; orain ez ditu 40 milioi balio. Gertuago egongo da 20 milioietatik— konpententzia handia baita—. Hortaz, operazio hori ezin da egin. Etxebizitza oso onak direnak %20 inguru jaitsi dira; kalitate txarragoa dutenak gehiago.

SAKANA
inmobiliaria

Isidoro Melero 18, 31800 Altsasu
Tel. 948 46 88 64 - info@pisosalsasua.com
www.pisosalsasua.com

S A L G A I



Altsasu: pisu eta apartamentu berriak altzariekin

Altsasu: bigarren eskukoak: pisuak, apartamentuak..

Altsasu: lokalak eta pabilioiak

Ziordia: herriko etxea bukatzeko lur saila

Olazti: apartamentuak 30.000 €tik aurrera

Urdiain: herriko etxeak

Iturmendi: atxikiak

Bakaiku: 4 gela, 2 komun, garajea

Etxarri Aranatz: pisuak, lur sailak eta pabilioiak

Etxarri Aranatz: pabilioia etxebizitzekin.

Arbizu: pisuak eta atxikiak



Lakuntza: pisuak, apartamentuak eta atxikiak

Lakuntza: lur sail industrialak

Lizarraga: etxe txikia konpontzeko

Ihabar: 3 logelako pisua

Irurtzun: 3 logela, komuna, garajea, altzariekin





Jaione Urteaga, Alfa higiezin agentziako arduraduna

«Erosteko **momentu** ona da orain»

Zer da gaur egun gehien eskaintzen dena: alokairua edo erosketa?

Orain dela 2 urtera arte alokairuak izan ziren gehiago. Orain, berriz, aurreko urte bukaeraz geroztik, erosketak hasi dira mugitzen. Erosteko momentu ona da oraingoa eta batzuek aukera hori aprobetxatzen ari dira. Prezioak jaitsi dira, eta jabeak negoziatzeko prest egoten dira gehienetan. Hori dela eta, eskaintza onak daude orain. Bereziki pentsatzen ari naiz lanean dauden eta erosketa egiteko aurrezki batzuk dituzten pertsonengan (%20 gomendatzen dute, baina hori baino txikiagoa ere izan daiteke).

Zein da zuen bezeroen perfila: erosleena, adibidez?

Ez dago perfil bakarra, hainbat higiezin mota saltzen dira eta jendea ere askotarikoa da. Hala ere, nabarmentzekotan, seme-alaba txikiak dituzten bikote gazteak nabarmenduko nituzke. Horietako bikote askotan, batek Gasteizen lan egiten du, eta besteak Iruñean, adibidez. Horien helburua da herri guneko etxe bat erostea, lorategiarekin. Hori xe da gehien mugitzen ari dena orain.

Alokairuetan %10a baino ez da jaitsi, baina erosketetan %40 jaitsi da. Hori dela eta, merkatu diren etxebizitzak dira saltzen direnak. Altsasun, familiabakar batek 360.000 euro balio zuen lehen, gaur egun, ordea, 200.000 euro inguru. 90 m2, garaje eta trastelekua duen pisu batek, berriz, lehen 245.000 euro; orain, 125.000 euro.

Alokatzan dutenen perfila zein da?

Denetarik dago: elkarrekin bizitzera abiatzen diren bikote gazteak, eskailararik gabeko pisutara aldaketa egin nahi duten adineko pertsonak...

Nola eragiten du krisiak zuen sektorean?

Bete-bete. Gu izan ginen ondo-

rioak nabaritzen hasi ginen lehenak eta aterako garen azkenak izango gara.

Zer aldatu da? Zer neurri hartzen ari zarete?

Berdin irabazteko lan gehiago egin beharra dago orain. Gure kasuan, adibidez, beste inmobiliaria batzuekin elkar-lana egiten hasi gara. Bankuekin aliantzak egiten ari naiz: "Kontra baino, alde hobea". Ez nator bat banketxeak egiten ari direnarekin, baina bankuak gure konpetentzia zuzena dira. Orain ez dute banketxe lana egiten; higiezin agentzia bilakatzeko ari dira, eta guri ez zanpazteko hobe da elkarrekin lan egitea. Hori dela eta, banketxeen etxebizitzak saltzen ditugu hemen.

Prezioen azken urteotako joera nolakoa izan da?

Alokairuetan %10a baino ez da jaitsi, baina erosketetan %40 jaitsi da. Hori dela eta, merkatu diren etxebizitzak dira saltzen direnak. Altsasun, familiabakar batek 360.000 euro balio zuen lehen, gaur egun, ordea, 200.000 euro inguru. 90 m2, garaje eta trastelekua duen pisu batek, berriz, lehen 245.000 euro; orain, 125.000 euro.



Alzania 1
31800 Altsasu
Tel. 948 562 711
olaga@iaalfa.es
www.alfainmo.com

S A L G A I



U HARTE ARAKIL: 165m² ko atxikiak. Beheko sua. Altzariekin. 150.000 €

ALTSASU: Apartamentu berria: 2 logela + egongela + sukaldea+komuna 77.000 €



ALTSASU: 170 m²ko atxikiak + lorategia. Beheko sua. Altzariekin. 200.000 €



UNANU: Lorategia duen herriko etxe izugarria. Ikustekoa! Prezioa galdetu.

ALTSASU: Etxe bakarra 600 m²ko lur sailarekin. Prezio ona.

URDIAN: 180 m²ko herriko etxea. Beheko sua. 160.000 €

OLAZTI: 82 m²ko pisua+trasteleku a. Erabat berrituta. 75.000 €

ALTSASU: 80 m²ko pisua+garaje itxia. Urte gutxiak eta altzari batzuekin. 140.000 €

U HARTE ARAKIL: 96 m²ko pisua. Egoera onean. 70.000 €

ALTSASU: 60 m²ko pisua. Erdigunean. Eguzkitsua. 55.000 €

ALTSASU: 109 m²ko duplex-a. Oso argitsua. Alde zaharrean. 109.000 €

OLAZTI: Lorategia duen atxikitutako etxe erdi berria. Altzari batzuekin. Prezioa galdetu.

ALTSASU: 90m²ko pisua + garajea + trastelekua. Altzariekin. Igogailuarekin. 130.000 €

ETXARRI ARANATZ: 150 m²ko atxikitutako etxea. Altzariekin. Prezioa galdetu.

OLAZTI: 4900 m²ko landa lur saila, aisialdirako etxetxea egiteko baimenarekin. Prezioa galdetu.



60ko hamarkadaren amaiera aldera agertu ziren gure inguruan arrisku anitzetarako etxeko aseguruak. Ordura arte etxebizitza-jabeen polizek suteen aurkako babesa baino ez zuten eskaintzen. Urte batzuk geroago, lapurreta kasuetarako babesa ematen hasi ziren.

Arrisku anitzetarako **etxeko** aseguruua

Estaldurak xedatzen du prezioaren batetik besterako aldea

Arrisku anitzeko polizen prezioa aseguratzeko den balioaren arabera izaten da. Hala ere, badira itxuraz garrantzi gutxiago duten beste puntu batzuk: etxearen segurtasun neurriak (ate blindatua, kutxa gotorra...) eta etxea non dagoen, esaterako. Aseguru etxeek tarifak ezartzerakoan oso kontuan izaten dute etxea kokatua dagoen hiriko edo inguruneko ezbehar kopurua.

Aseguru bat baino gehiago poliza bakarrean

Aseguru etxe guztiek ez dituzte arrisku anitzetarako polizeetan arrisku berberak babesten. Oinarritzko arriskuek aseguratuak kapitalaren %100 babesten dute. Arrisku osagarriei portzentaje edo kopuru finkoak ezartzen dizkiote, ordaindu nahi den kuotaren arabera. Arrisku anitzetarako etxeko aseguru-

tan hiru atal bereizten dira: edukitzailea, edukia eta erantzukizun zibila. Edukitzailea etxebizitzaren euskarri fisikoa da. Zoru, horma, sabai eta leihoekin batera, erantsitako elementu finkoak ere hartzen ditu (hormako armairuak, berokuntza sistema, telebistako antena e. a.) eta jabeari eraikuntzatik dagokion zati proportzionala. Altzari, etxeko elektra tresna, jantzi, artelan eta bestelako elementuek edukia osatzen dute. Aseguru etxearen arabera, kasu batzuetan atal honetatik apar-

te uzten dira balioko gauzak (bitxiak, larruzko jantziak, antzinako gauzak e.a.), eta aparte deklaritzen dira. Azkenik, Erantzukizun Zibilak aseguratuak edo familiakoek beste norbaiti eragiten dizkieten kalte fisikoak edo materialak babesten ditu.

Urak eta suak sortutako kalteen estaldurarekin, argi

Arrisku anitzetara aseguru baten garrantzi garrantzitsuenetakoa urak eragindako

kalteetakoa da. Urak eragindako ezbeharra (euriteen edo ur sarearen ondoriozko uholdeak, edo auzokoak sorrarazitako hezetasun arazoak...) oso sarri gertatzen dira, eta normalean konponketa kostu handia eskatzen dute. Beraz, garrantzitsua da poliza mugaturik ez egotea. Hala ere, poliza guztietan ez da estaldura osoa eskaintzen urak eragindako kalteetarako.

Sute kasuan ere, izan ohi duen eragin latzogatik, edukitzailearen eta edukiaren %100eko kalte-ordaina eman ohi da

Aseguru problematikoa Arrisku anitzetarako aseguruua da, aseguru etxeen eta bezeroen artean gatazkarik gehien sortzen duena, ezbeharren erantzukizuna erabakitzerakoan batez ere. Kasurik gehienetan, bezeroak kontratatutik duen aseguru-polizaren mugen eta salbuespenen berri ez duelako gertatu ohi dira desados-

tasunak. Estaldurarik gehienek gehiengo, gutxiengo eta frankiziak izaten dituzte muga, arriskuaren arabera. Salbuespenen artean, normalean aseguruak ez dituzte estaltzen aseguratuaren zabarkeriagatik edo elementu aseguratuaren berezko desgasteagatik sortutako kalteak, edo hezetasunak, kondentsazioak edo keak apurka-apurka eragindako kalteak, besteak beste. Halaber, garantia zenbait interpretazioari lotuta dago, tresna elektrikoetan gertatzen diren kalteak esaterako. Zenbait konpainiak edozein egoeratan gertatuta ere ordaindu egiten ditu kalte hauek; beste zenbaitek, berriz, kaltea tximistak eragin duenean edo tresnek 5 urte baino gutxiago dutenean baino ez du kaltea bere gain hartzen. Beste hainbeste gertatzen da sarraila aldatzekin ere. Aseguru etxe batzuk sarraila behartzen den kasuan bakarrik ordaintzen du ordezkioa jartzea, eta beste batzuk giltzak lapurtu edo galdu izana ere onartzen dute kalte-ordaina emateko.





Etxeko aseguruaren estaldura garrantzitsuenak

Edonork daki arrisku anitzetarako etxeko aseguruak kontratatzean sute eta uholdeen aurka babesten duela etxea. Hala ere, polizen letra txikiak garantien zerrenda luzea jasotzen du eta ezbehar askotan erreklamatu gabe geratzen dira horiek. Arrazoia oso ximplea da: jendeak ez ditu ezagutzen. Arrisku anitzetarako zenbait aseguru biltzen dituzten estaldurak aipatuko ditugu hemen. Irakur ezazu arretaz zure aseguru-polizaren letra txikia, ongi etorriko baitzaizu ezbeharren bat gertatuz gero. Eta, bide batez, ziurrago jakingo duzu etxeak zein babes duen.

Etxetik kanpoko lapurreta. Lapurreta gertatuz gero, lapurtutako diruagatik eta gauzengatik ordaintzen du aseguru etxeak, baina kasu gehienetan muga batera arte.

Kreditu txartelak iruzurrez erabiltzea. Txartel bat lapurtu edo galdu delako iruzurra gertatzen bada, aseguru etxeak kalte-ordaina emango dio bezeroari. Kasu honetan ere diru-muga bat egoten da.

Kalte estetikoak. Ezbeharra gertatu ondoren, aseguratzailerak batzuk lehen zegoen moduan uzten dute etxea, estalduraren arabera.

Leihoetako beirak, kristalak, komuneko loza eta bitrozeramika haustea. Batzuetan hauetako bakoitza aparte ordaindu behar izaten da.

Etxebizitza bizi izateko moduan ez gertatzea. Polizak

babesturiko ezbehar baten ondorioz bezeroak eta familiak etxea utzi beharra badute, aseguru etxeak ordaindu egiten ditu ostatua edo antzeko etxebizitza alokatzeko gastuak.

Jaki izoztuak alferrik galtzea. Argindarra eten delako edo hozkailuak matxura izan duelako jakiak alferrik galtzen badira, aseguru etxeak kalte-ordaina ematen du.

Agiriak berritzea. Zenbait aseguru etxek ezbeharrean kalte-turiko agiriak (NAN, gidatzeko baimena, pasaportea) berritzeak sortzen dituen gastuak bere gain hartzen ditu.

Ondasunak aldi baterako lekuz aldatzea. Aseguratuak garrantizatu egin ditzake oporretan edo bestelako aldaketaren baten eraginez estatuan zehar berarekin eramaten dituen ondasunak.

Ziur jokatu aseguruak aukeratzean

Eska ezazu informazioa aseguru etxe baten bakoitzak eskaintzen duen polizaren kalitate-estaldura-prezio harremana konparatu. Ezer sinatu aurretik, galde itzazu kontratuaren baldintza orokorrak eta partikularrak zeintzuk diren eta aztertu klausula guztiak. Arreta berezia jarri muga eta salbuespenetan.

Kontratuan zalantzak sortzen dizkizuten klausulei buruz galde ezazu eta eskatu bakoitzaren

interpretazio posibleei buruzko informazio zehatza.

Segurtatu ordaindu beharreko primak barne dituela erantzukizun zibila (gomendagarria da), ordainketa zatika egiteagatik gaitzarguak, komisioak, tasak eta zergak.

Argi ezazu ezbeharrik gertatuz gero kalte-ordaina nolakoa izango litzatekeen: galdutako gauza berriz jartzeko, ordezkatu, zerbitzua eskaini edo kalte-ordaina dirutan emango den.

Kontratuaren aldaketak eta gehitzeak idatziz jasotzea eska ezazu.

Asegura ezazu etxearen balio zehatza. Behetik jotzen baduzu (azpiasegurua) prima txikiagoa ordainduko duzu, baina ezer gertatuz gero, izandako kaltea baino txikiagoa izango da kalte-ordaina ere. Tasazioa etxearen egiazko balioa baino handiagoa bada (gainasegurua), gehiago ordainduko duzu, baina zenbait kasutan kalte-ordaina ez da dagokiona baino handiagoa izango.

Eska iezaiozu aseguru etxeari ondasunak zerrendatzea. Horrela, ebazpena loturik geratuko da.

Gorde ezazu aseguruaren dokumentazio guztia. Kontratuak, klausulak, ordainagiriak —baita publizitatea ere—, erreklamazioak izanez gero, baliagarri izan daitezkeeta.

Aseguruaren estaldura polizaren ezarritako balioa berritzen bada, kontuan izan normalean merkatuko balioaren azpitik izango dela.

Agiriak, bitxiak eta dirua lapurtu badizkizute, arreta berezia jarri. Kalte-ordaina eskuratu ahal izateko baliteke indarkeria edo mehatxu fisikoa izan zela frogatu behar izatea, eta hori ez da oso atsegina.

Ezbeharrik gertatuz gero, gertaera jakinarazteko epeak eta modua bete ezazu. Ezbeharrean gertatutakoa ahalik eta zehatz jakinaraz konpainiari.

etxeko aseguruetan
%45 era arteko
deskontuak
eta, gainera, etxetresna
elektrikoak konpontzeko zerbitzua DOAN

MAPFRE ALTSASU

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM jimazpr@mapfre.com
San Juan 48 behekoa • ALTSASU • 948 563 354

Aseguruak prezio hoberean

Agentzia Bakarra

Allianz Aseguruak

SEGUROS

HNOS. SAYAS MAZQUIARAN S.L.

www.sayasmaz.com
Tel.: 948 563 559 · Gartzia Ximenez 25 · 31800 ALTSASU

Kotxe
ASEGURUetan

35 era arteko
deskontuak

MAPFRE

ASEGURUAK
Erkuden Urteaga San Roman
Etxarri Aranatzeko ordezkaria
Erregistro zbkia. 8572

Kale Nagusia 4 • ETXARRI ARANATZ
948 461 055 eurteag@mapfre.com

familia bakarreko adosatuak
ALTSASUN

Erburua kalean

- 173 m² erabilgarri
- Sukalde hornitua
- Garaje bikoitza + txokoa
- Lorategia

SALGAI eta **ALOKAIRUAN**

INFORMAZIOA ETA SALMENTA:
649 46 32 89 www.zubara.es

ZUBARA
Eraikuntzak, S.L.





Etxean konponketak eta berrikuntzak egiteko diru-laguntzak

Krisiaren eraginez asko aldatzen ari da etxebizitzaren sektorea. Zaharberritze bulegoan ere nabaritu dute eragina. Izan ere, sakandarron ahalmen ekonomikoa txikiagoa da orain, eta, hori dela eta, diru-laguntzen eskaera %60 jaitsi da EZABUn, Etxeak Zaharberritzeko Bulegoan.

Bestalde, badira urte pare bat etxebizitzak zaharberritzeko Nafarroako Gobernutik ematen dituzten diru-laguntzen baldintzak gogortu zituztela. Aurtun, esaterako, desagertu da errentaren aitorpenean %18a desgrabatzeak aukera. Hala ere, diru-laguntzak %45ekoak izan daitezke.

Beraz, edozein proiektu edo obra kontratatu aurretik Sakanako Mankomunitateko Etxebizitzak Zaharberritzeko bulegoan galdeztzea da zentzuzkoena. Aipatu bulegoa Sakanako Mankomunitatearen

egoitzan dago. Goizez aritzen dira lanean: 8:00etatik 15:00ak arte, aste-gunetan betiere.

Diru-laguntza eskaera egiteko ondoko baldintza hauek bete behar dira:

- Etxebizitzak 20 urte baino gehiago izatea (orain arte 12 urte izatea nahikoa zen).
- Gutxienezko aurrekontua 4.000 eurokoa (BEZ gabe) izatea.
- Obra hasi gabe egotea.

Diru-laguntzak dituzten obrak ondokoak dira:

- Instalazioen berrikuntzak (elektritzitatea, iturgintza, berogintza...).
- Hodiak eta txorrotak aldatzea.
- Berogailua jartzea edo aldatzea.
- Galdarak aldatzea.
- Teilatua berritzea.
- Fatxadak berritzea.
- Isolamendua hobetzea.
- Leihoak eta kontraleihoak aldatzea.
- Lehendik dagoen eraikin batean etxebizitza berri bat egitea.

- Bizigarritasun baldintzak hobetzen dituzten etxe-barneko obrak.
- Bainugelan aldaketak
- Elbarriendako egokitzapenak.
- Igogailuen instalazioa
- Eta abar.

Etxebizitzak Zaharberritzeko Lakuntzako bulegoaren bitartez (948 576 293) espedienteak tramitatu eta diru-laguntzak lortzeaz gain, abantaila duen mailegua eskatzeko aukera ematen da, edo, bestela, fakturen BEZ %10koa izatea gehienetan. Izan ere Nafarroako Gobernuak ematen dituen diru-laguntzak

bi motatakoak izan daitezke: bate-tik, diru-laguntza hutsa (adibidez, igogailuetan %30-45 ingurukoa izan daiteke; bestelako obretan, berriz, %0-40 bitartekoa) eta, bestetik, mailegua interes baxuagoan lortzeko aukera ere badago.

EZABU: Etxeak Zaharberritzeko Bulegoa

Sakandarrok Lakuntzara jo behar dugu nahitaez etxebizitzak zaharberritzeko diru-laguntzak eskatzeko. Izan ere, Mankomunitatearen egoitzako bulegoan Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak tramitatzen dituzte, eta Sakanariez Larraun, Araitx, Areso, Leitza, Goizueta eta Aranoko biztanleei zerbitzua eskaintzen zaie bertan. Joaquín Anso eta Amaia Serrano dira bulegoko langileak.

Ordutegia: 8:00-15:00

Tel. 948 576 293

ezabu@sakana-mank.com

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Espedienteak tramitatzeko ondoko dokumentazioa aurkeztu behar da: NAN, udal baimena edo baime-naren eskaera, proiektua edo aurrekontua, errenta aitorpena eta erregistroko ohar soilak.

Biziegokitasuneko sinestamenduak

Agiri horren bitartez ziurtatzen dute etxebizitza batek betetzen dituela Nafarroako Gobernuak eskatzen dituen gutxienezko baldintzak. Biziegokitasuneko sinestamendua derrigorrezkoa da etxebizitza berri-erakoa zein eraikitzauden erakoa. Tramite hori, Lakuntzako Etxebizitzak Zaharberritzeko Bulegoan bideratzen dute.

Baina, zer prozedura dago biziegokitasuneko sinestamendua lortzeko? Etxebizitzak Zaharberritzeko Bulegoan agiri guztiak aurkeztu eta gero, bulegoko teknikari batek obra/etxebizitza bisitatu eta dagokion txostena egingen du. Zaharberritze Bulegoak Nafarroako Gobernura helaraziko du eskaera eta txostena, Gobernuak biziegokitasuneko sinestamendua eman edo uka dezan.

Zer agiri aurkeztu behar dira sinestamendua lortzeko?

— Etxebizitzaren jabetza edo okupazio-titulua ziurtatzen duen agiria (etxebizitzaren eskritura edo errentamendu kontratua).

— Etxebizitzaren antzinatea sunari, helbideari eta katastro-erreferentziari buruzko datuak.

— 1985eko uztailaren lehenaz geroztik biziegokitasuneko baldintzak eta azalera aldatzen dituzten obrak etxebizitzan egin ez izanaren zinpeko adierazpena.

— Eskatzailearen nortasun agiria NANaren bidez, IFZ-ren bidez edo, ordezkari zuzen badi — auzokide erkidegoko ordezkaria, esaterako —, horren egiaztatgiriaren bidez.

Energia Berriztagarrien Instalazioa eta Ingeniaritza

Eguzki-energia termikoa
 < Kontsumoko ura berotzeko < Berogailuak
 < Igerilekueko ura berotzeko

Eguzki-energia fotoboltaikoa eta haize-energia
 < Etxe bakartuak elektrifikatzeko
 < Sare nagusiari elektrizitatea saltzeko

Biomasa < Pellets /Egurra galdarak

ALTSASU - Isasia industrialdea, 4 pabiloia www.esipsolar.com
info@esipsolar.com T eta F: 948.564.024 M: 609.74.52.25

699 938 342

Zuntaipe Javier Malo Azpiroz

dekorazioak

zuntaipe



«Zaharberritzeak %60 jaitsi dira Nafarroan»

Joaquin Anso, Sakanako EZABUko (Etxeak Zaharberritzeko Bulegoko) langilea:
«Kanpotik isolatuta dagoen etxebizitza batek klasifikaziorik onena lortuko du»

Nolako konponketak egiteko eskakizunak jasotzen ari zarete azken aldian?

Auzokide elkarteetan, igogailuak jartzeko eskakizunak dira jasotzen ditugun gehienak: batetik, igogailurik ez dagoen etxean igogailua jartzeko; eta, bestetik, oztopo arkitektonikoak kentzeko lanak (arranpak eginez edo igogailua lurreraino jaitsiz).

Zenbateko aurrekontuko lanak izaten dira horiek? Eta, aurrekontuaren zenbateko da diru-laguntza?

Ezberdindu behar da etxebizitzan dagoeneko igogailua dagoen ala ez; baita igogailua paratzeko eskailera berri bat egin behar den ala ez. Adibide bat: 3 solairuko etxebizitza batekoa, 5 geldiketakin: 150.000 euro kostatuko zaie igogailu berria jartzea eskailera-
ren tokian eta berriak egitea. Es-

kailerak tokiz aldatu gabe 80.000 euro kostatuko zuen. Bi kasu horietan %33-45 arteko diru-laguntza jasoko lukete, kendutako oztopo arkitektonikoen arabera.

Gainerakoan, zertarako izaten dira eskakizun gehienak?

Teilatuak konpontzeko lanak, leiho aldaketak, sukalde edo bainugeletako egokitzapenak, bergailua ezartzeko obrak. Kasu horietan diru-laguntzak Orik %40ra bitartekoak izan daitezke.

Zenbateko aurrerapenarekin etorri beharra dago EZABUra diru-laguntza eskaera egitera?

Tramite guztiak egin eta denboraz ibiltzeko: hilabete bat edo bi lehenago.

Obra bat egin nahi duten auzokideei zer aholku ematen dizkizue?

Proiektua egin aurretik guregana etor daitezela aholkatzen diegu. Izan ere, batzuetan aldaketak egin behar dira, eta horrek obraren kostea handitzen du. EZABUn behar adina argibide emateko prest gaude. Garai batean lanez gainezka ibiltzen ginen, eta orain obrak jaitsi direnez, denbora gehiago edukiko dugu bisitak egiteko.

EZABUn krisia nabaritzen ari zarete?

Askok. Sakanan asko, baita Nafarroan ere bai. Egiten diren zaharberritzeak %60 jaitsi dira Nafarroan. Lehen egiten ziren zaharberritzetan 65 urtetik gorakoak izaten ziren nagusi, diru-laguntza handiagoak jasotzen duen sektore dela-



Joakin Anso eta Amaia Serrano dira Sakanako EZABUko langileak.

ko. Orain, berriz, gauzak aldatu dira; izan ere, seme-alabak langabezian gelditzearen ondorioz, kasu askotan familia oso bat bizi baita pertsona erretiratu baten menpe. Ahalmena duten pertsonak ere gastatzeko beldur dira, bizi dugun egoerarengatik. Eta dirua ez duenak finantzazioa behar du eta finantzaziorik ez dago. Bankuek ematen duten finantzazio bakarra bere etxeak saltzeko da. Gertatzen ari den beste gauza bat da, zergen igoeren ondorioz ezkutuko lana handitzen ari dela. >>

Proiektua egin aurretik guregana etor daitezela aholkatzen diegu. Izan ere, batzuetan aldaketak egin behar dira, eta horrek obraren kostea handitzen du.



AITZIBER SAN ROMAN
ANA JESUS BARRICARTE

ARKITEKTURA

Altzania kalea 1A - 1ºB
Tño-Fax: 948468495

PK31800 Altsasu/Alsasua
email : arqyme@coavn.org



OBRA BERRIEN ETA ZAHARBERRITZEEN PROIEKTUAK



maria pilar bakaikoa

ERAIKIN BERRI ZEIN
ZAHARBERRITZE LANAK

Isasia Industrialdea A1 behe
31800 I Altsasu I Nafarroa
650 831 816
p.bakaiku@coavn.org

Proiektu bakoitza irizpide bioklimatikoei, bioeraikuntza eta tokian tokiko arkitekturari egokitzen saiatuko gara



Beraz, egun egiten diren obrak behar beharrezkoak dira; estetikako albo batera gelditzen ari dela esan dezakegu?

Bai, nik uste dut estetika, dagoneko, alde batera gelditu dela; hobe, gainera. Izan ere, fatxadak berritzeko egin diren hainbat obra eskasak izan dira: esaterako, etxebizitza batean pintura eman eta 4-5 urte baino ez du iraun, eta etxe barruan ez dute ezer nabaritu. Etxe guztiak, baita orain egindakoak ere, isolamentu faltan daude. Fatxadako obrak egiten direnean, isolamendua kanpotik jarri beharko zen, energia eta dirua aurrezteko. Obra mota hori garestiagoa da, baina 6-7 urteren bueltan amortizatuko du. Udan eta neguan konfort gehiago nabaritu dugu eta dirua aurreztu ahal izango dugu. Europako 25 urte daramate isolamendua kanpoan jartzen. Oso atzeratuta gaude hemen. Hemengo eta oraingo norma betetzeko 6-8 cm isolamentua behar dugu. Denbora gutxi barru aldatuko da eta 14-17 cm beharko dira, dirudienez. 2020. urtean Europak "passivhouse" neurriak behartuko du eta 22 cm-ko isolamentua jarri beharko da orduan. Europako toki batzuetan heldu den norma hori gaindituta dute aspalditik.

Europako ziurtagiri bat dago etxeko energia aurrezpena neurtzen duena, ezta?

Ziurtagiri hori hemen ere aurreten aplikatu beharko da, etxe guztiek behar dute, zahar nahiz berriek. Etxe batek dituen ezaugarriak kontuan hartzen da zertifikazioaren klasifikazioa zehazteko. Etxebizitza alokatu edo saldu behar dugunean maizterrak edo erosleak informazio hori eskura izango du, eta erabaki ahal izango du zein etxe nahiago duen. Izan ere,

klasifikazio horretan gorago edo beherago egon, gastua handiagoa edo txikiagoa egin beharko dugu berogailuan, adibidez.

Nola lor dezakegu ziurtagiri hori?

Tekniko batek egiten du kalkulu bat eta arkitekto edo aparejadore batek ziurtatzen du, normalean. Ziurtagiri horretan nota ona ateratzeko zer beharko luke etxeak? Kanpotik isolatuta dagoen etxebizitza batek klasifikaziorik onena lortuko du. Isolamendua da garrantzitsua.

Energia garbiak jartzeko sistemak badute diru-laguntzarik?

Bai, Berrikuntza Departamentuak Europako diru-laguntzak bideratzen ditu urtero. Arazoa da diru kopurua txikia dela, eta berehala bukatzen dela.


Horrelako sistemak jartzeko interesa dutenei zer aholku emango zenieke?

Nire ustez garrantzitsua da horrelako ezer egin aurretik etxea ongi isolatzea. Etxea berotzeko zer sistema erabili, hori bigarren pausoa da, izan ere, berogailu sistema on bat isolamendurik gabeko etxe batean, gehien kasuan, ez du logika handirik. Gasturik handiena aurreztuko dugu isolamendu on baten bitartez.

Eguzki plakek zer moduz funtzionatzen dute?

Arazo handiak eman dituzte, mantenua eta instalazio on bat behar dutelako eta gehienetan ez dira ondo egin. Instalazioek hutsune asko dituzte. %95ak ez dute behar bezala funtzionatzen edo geldirik daude (gehienak). Oraingo instalazio berriak hobeki egiten dira, baino denborak esango du.

AZKEN BOST URTEOTAKO BILAKAERA



ETXEBIZITZAK ZAHARBERRITZEKO LAKUNTZAKO BULEGOAREN 2012 URTEKO DATUAK

HERRIA	BABESTUTAKO AURREKONTUA	MAILEGU KOPURUA	DIRU-LAGUNTZA	ETXEBIZITZA KOPURUA
ALTSASU	585509	30205	218513	20
ARBIZU	94537	51882	28743	7
BAKAIKU	130718	37833	50461	6
EKAI	103355	93020	10356	1
ETXARRI ARANATZ	207166	119902	70507	19
IRAÑETA	11206	6724	4483	1
IRURTZUN	1249777	189504	489319	49
ITURMENDI	181293	155585	46388	2
IZURDIAGA	123657	8562	32703	4
LAKUNTZA	112432	14273	39867	2
LIZARRAGA	40164	0	13130	5
LIZARRAGABENGOA	6481	0	2593	1
LIZARRAGA-ERGOIENA	5357	0	2143	0
OLAZTI	31505	7045	10712	4
SATRUSTEGI	7440	0	2976	1
UHARTE ARAKIL	36485	19301	14594	2
URDIAIN	258726	144187	87879	7
ZIORDI	19961	11977	7985	0
ZIORDIA	40247	0	13856	4
GUZTIRA	3246016	890000	1147208	135

BABESTUTAKO AURREKONTUA: laguntzen den obraren aurrekontua. MAILEGU KOPURUA: eskatutako mailegu babestuen zenbatekoa. DIRU-LAGUNTZA: obrak amaitu ondoren emandako diru-laguntza

EZKARATZAK BERRITZEN DITUGU

- >> Igogailuak jartzea
- >> Fatxada eta teilatua berritzea

ERAIKUNTZA

- >> Etxe bakarrak
- >> Etxebizitzak birgaitzea
- >> Industria nabeak

40 URTEK GORAKO
ESPERIENTZIAREN
BERMEAREKIN

ERAIKUNTZAK

JAMSAR S.L.


948 460 254

Nagusia, 15 atikoa 31820 Etxarri Aranatz
info@construccionesjamsar.com
<http://www.facebook.com/JamsarSI>
www.construccionesjamsar.com

Babes Ofizialeko 8 etxebizitza Etxarri Aranatz

76 m² etxebizitza + 30 m² garaje
+ 4 m² trasteleku

140.354 €tik gora (+%10eko BEZ)



AZKEN ETXEBIZITZA!!

KONPROMISORIK
GABEKO
AURREKONTUA
EGINEN DIZUGU!!!

SAKANA

Parot doktrinaren kontra, kalean

Irurtzunen 35 pertsonak, Arbizun 103k eta Altsasun 70ek kontzentrazioetan parte hartu zuten. Haien bidez makina bat sakandar 197/2006 dotrinaren kontra azaldu dira. Eta, aldi berean, doktrina hori aplikatuzaien 73 presoak askatzeko eskatu dute. Haien artean daude Jesus Mari Mendinueta arbizuarra eta Bautista Barandalla etxarriarra. Legedi horrek Giza Eskubideen hitzarmeneko bi artikulururratzen dituela salatu zuten. Atzo Europako Giza eskubideen Auzitegiak Ines del Rio presoaren epaian Espainiak jarritako helegitea aztertu zuen. Epaia eman aurretik 6 hilabete pasa daitezke.



Arbizuko bilkuran Mendinueta eta Barandalla gogoan izan zituzten.

Urte bateko kartzela zigorra Aldasororendako

Sortuko Nafarroako arduradun Juan Kruz Aldasoro etxarriarrari urte bateko kartzela zigorra ezarri diote, “2010eko irailaren 14an bere anaia atxilotzera joan ziren Guardia Zibilen agenteei atentatu saiakera egiteagatik”. Halaber, lesioengatik 3 falta ezarri dizkiote eta bakoitzarengatik 180 euroko isuna ordaintzera kondenatzen du

epaiak. Horretaz gain, agente bakoitzari 115 eta 144 euroko kalte ordaina ordaintzera. Zigor-arloko 2. zenbakiko epaitegiak eman du epaia, eta Nafarroako Auzitegi Nagusian errekurtsioa aurkeztu daiteke. Sententziak dioenez, Aldasororen anaia Joxeren atxilotetaren ondoren, agenteek etxebizitza miatzen ari zirela bertatik aldegitoko eska-

tu zioten Aldasorori. Epaileak epaian dioenez agente baten kontra egin zuen etxarriarrak. Sortutik adierazi dutenez “gure babes osoa agertu nahi diogu Juan Kruz Aldasorori eta sententziaberri hau salatu nahi dugu, izan ere, salbuespeneko legeak aplikatuz, Guardia Zibilak izandako gehiegizko jokaera babesten du legeak. Bitartean, Joxe Aldasororen atxiloteta eta inkomunikazio garaian jсандako tratatu txarrak eta torturak ikertu gabe daude oraindik”.

Hornitzaileak kezkatuta

Sunsundeguiko enpresa hornitzaileek ez dakite noiz eta nola kobratuko duten enpresak haiekin duen zorra. Sunsundeguitik zenbait hornitzaile, baina ez denek, jakinarazi zaie 2 urtetan ordainduko dietela, baina zorraren %70. Baina ordainketak nola egingen dizkieten ere ez dakite. Haserre nabaria da hornitzaileen artean: “lehen, behintzat, Nafarroako Gobernu atzetik zegoela zenekien. Orain, zeinek egingen die zorrei aurre?”

Hornitzaile batzuk dakitena da hilaren 25ean bankuek Sunsundeguiaren fakturak kobratu gabe bueltatuko dizkietela. “Ilbeltzetik zorra handitu besterik ez dira ari”, kexu

da hornitzaile bat. Egoera horrek enpresa hornitzaileen ekonomian ondorioak izateaz gain, bankuekin arazoak sortarazten dizkie eta haien jarraipena zailtzen jartzen du.

Parlamentuan pozik

Nafarroako Parlamentuko bozera-maileen batzordeak atzo Sunsundegui zuzendaritzak eta langileek enpresaren jarraipena ziurtatzeko lortutako bideragarritasun planerako akordioagatik “poztasun” adierazpena onartu zuen. Horrekin batera, Nafarroako Parlamentuak “akordioa lortzeko aktiboki aritu direnak zoriondu, jakitun zailtasun handiak gainditu



behar izan dituztela”. Parlamentuko adierazpenean jasotzen denez, akordiorako jarreratik egungo eta etorkizuneko zailtasunak gaindituko direla. UPNk, PSNk eta PPK alde bozkatu dute eta Bildu, Aralar-Nabai eta I-E abstenitu egin ziren.

Altsasu



Enpresako egoitza aurrean kontzentratu ziren ostiralean.

Lazaro Echeverria enpresako langileek Lan Ikuskaritzara jo dute

Mugagabeko greba gaur 16. eguna dute langileek

Altsasuko enpresako langileak hilaren 6tik mugagabeko greban daude. ELAtik jakinarazi dutenez, Lan Ikuskaritzan demanda jarri dute, haien egitekoa enpresaren jabe den familiako kideak egiten ari direlako. Sindikatutik aurrerratu dutenez, ikuskaritzaren ebazpenaren arabera lan-arloko epaitegira joko dute.

Bestalde, atzo kaleratutako sei langileen adiskidetze-ekitaldia egingen da. Kaleratze bidegabea dela eskatu zuten langileek. “Gure ustez

kaleratzeak ez daude justifikatuta eta ez dago horretarako baldintzarik”. Baina enpresako ordezkariak ezzen agertu. ELAtik adierazi dutenez, “enpresak ez du inongo akordiorik lortzeko borondaterik, beraz grebak segituko du”. Kaleratuen gaia konpondu eta langileen lan eta soldata baldintzak bermatuko dituen enpresa hitzarmen lortzea da langileen helburua.

Langileek enpresen azken urte-etako irabazien berri eman dute: 2.008an 2 milioi euro; 2.009an, 1.596.000 euro; 2.010ean 959.000 euro eta 2.011n 881.000 euro.

MAITE
arrandegia
Arrain freskoak, egunero
Pasaiako zapo beltza eta amuko legatza

948 467 385 • 607 973458
La Paz 3 • ALTSASU

GANUZA SUKALDEAK
SUKALDERAKO ALTZARIAK

Bainu gelako altzariak
Horma armairuak
Elektragailuak

GANUZA GARANTIAREKIN

Tel.: 948 460 203
faxa: 948 460 673
Etxarriko industrialdea
ETXARRI-ARANATZ

PPSOE,
ETB
digitala
Nafarroan orain!

Berria erosi taldea

Ondarria industrialdea
ALTSASU
Unamuno
Tel. 948 562 829 Faxe 948 563 002

LARROSEN GARAIA!

SASI-GARBITZEKO MAKINA

BEROGAILUENDAKO BIOERREGAIA

FRUTA-ARBOLEN GARAIA BADATOR

BEHIAK ETA ARDIAK JEZTEKO TRESNERIA

ABERE INSTALAZIOAK



948 564 275 argi@guaixe.net



Enkartatzea → 340€

Diseinatzea + inprimatzea + enkartatzea → 455€

eskaintza ez metagarria

Zure eskuorria
Guaixeren barruan
Sakanako 4.500 etxetan

Guaixe
KOMUNIKAZIOA

>> Irurtzun

Bigarren Eskuko Azokaren 25. edizioa igandean

Irabaziak Senegalgo Darou Salamen kontsultategi anbulatorioa zabaltzera bideratuko dira

Igandean, martxoaren 24an, Itxipuruk bigarren eskuko azoka egingen du Irurtzongo Foru plazan, goizeko 10:00etatik 14:00ak arte. Azoka berezia izango da, 25. edizioa izango baita.

Itxipururen bigarren eskuko azokek helburu bikoitza dute. Batek, etxean egoera onean dauden baina erabiltzen ez ditugun liburu, disko, arropa, sukaldeko tresneria, altzari, jostailu eta abarri irtenbide bat ematea. Etxean izan beharrean edo bota beharrean, azokara eraman eta haiek behar dituenak oso prezio merkean izango dituzte produktu hauek erosteko aukera. Beste mota bateko kontsumo arduratsua go bat sustatu nahi da, finean. Diru gutxiarekin puntako produktuak eros daitezke eta guk erabiltzen ez duguna beste batek erabili



Azoka igandean egingen da, 10:00etatik 14:00etara, Foru plazan.

ahal du. Hori da filosofia. Beste helburua azokatik sortutako etekinak proiektu sozialei bideratzea da.

Kalitate oneko mota guztietako produktuak prezio paregabean

erosteko aukera izateaz gain, bigarren eskuko azokan pintxo beroak dastatzeko aukera izango da, haurrendako tailerrak eta jolasak prestatuko dituzte eta musi-

Ohiko gaitzak artatzeko kontsulta Senegalen

Igandean jasotako dirua Senegalgo Darou Salamen kontsultategi anbulatorioa zabaltzera bideratuko da. Darou Salam zonalde oso pobreak dagoen herri txikia da, ia baliabiderik gabekoa: ez dago apenas bizibiderik, urik, argirik, hezkuntzarik ezta baliabide sanitarioarik. Biztanle gehienak emakumeak dira eta nekazaritza bizi dira, baina lehortearengatik eta enplegu faltagatik biztanle askok kanpora jotzen du lan bila. Herri honetan ez dago ez osasun etxerik ezta erizaintzako arreta

gunerik. Gainera, asistentzia sanitarioa ez da doanekoa Senegalen, eta gaixotasun kutsakorrek pairatzeko arriskua handia da.

Horregatik kontsultategi anbulatorio bat zabaltzea nahi da Darou Salamen, herritarrei ohiko gaixotasunen eta gaitzen tratamendua egin ahal izateko eta gaixotasun komun horien prebentzio kanpainak landu ahal izateko: malaria, desnutrizioa, infekzioak eta birusak, sarna, pneumonia, dengea, zauriak, ebakiak, ultzerak, osasuna eta higieena zaintzeko kanpaina, HIESaren prebentzioa, haurdun dauden emakumeen eta jaioberrien segimendua eta beste.

ka emanaldia, zuzenean.

Apirilaren 6an afaria

Senegalgo aipatu proiektua bulkatu ahal izateko, Itxipuruk elkar-

tasun afaria ere antolatu du apirilaren 6rako, larunbata, Iratxo Elkartean. Jasotako dirua aipatu proiektura bideratuko da. Animatzeko deia egin du Itxipuruk.

SAKANA

Ez zaitez espaloitik jaitsi. Euskaraz bizi!

EHEk apirilaren 13an Agoitzen ospatuko den Euskaraz Bizi Egunera joateko autobusa antolatu du. Lakuntza, Etxarri eta Altsasun, ohiko tokietan eman daiteke izena

Titularra Euskal Herrian Euskaraz (EHE) eragile euskaltzaleak antolatu duen Euskaraz Bizi Eguneko leloa da. Lelo sakandarra. Izan ere, Etxarri Aranazko EHEk udaleko Euskara Batzordearekin abiatu zuen egitasmo batetik ateratu da. Bahametan gertatzen dena du oinarri: hiritar beltz bat espaloitik joaten zenean, txuri batekin gurutzatzen zenean, espaloitik

jaisten zen. Euskal Herrira ekarritik euskaldun gehienok "berdin jokatzeko dugula" diote EHEko kideek: "erdaldunekin topo egitean, espaloitik jaitsi eta erdaren errepidera egiten dugu salto".

Sakanako EHEk aurtengo Euskaraz Bizi Egunaren bitartez, ideia horretan egin nahi dugu indarra: "herri euskaldunari zuzentzen gatzatzen euskaldun izatearen harrotasuna erakutsi, eta espaloitik jaitsi gabe, euskaraz bizitzeko hautua egin dezagun euskaldunok". Eragile euskaltzaleko kide-



Apirilaren 13ko Euskaraz Bizi Egunerako autobusak antolatu EHEk.

ek azpimarratu dutenez, "euskaraz bizitzeko herri gogoa indartzea lehentasunezko gai bilakatu behar

dugu garaiotan. Euskaldun eta harro, gainera. Mendeetako zapalkuntzak gudan sortu dituen uestez-

ko errespetuzko jokabide sumisak gaituz". Horregatik, "estatu asimilatzaileei ezer eskatzen hasi aurretik, baina exijitzeari utzi gabe, euskararik gabe Euskal Herririk ezin dela eraiki benetan barneratu". EHEko kideek ziurtatu dute "aldaketa estrategikoen alde egiteko garaia" dela.

Eragile euskaltzalek "euskarari lehentasuna emango dioten legedi eta politikak aldarrikatzeko garaia da. Baita euskara eza gutu beharreko hizkuntza gisa kokatzeko ere. Eta erabakitze eskubideari tiraka, hizkuntza politika burujabe eta nazionala eskuratzeko ahalgintzako garaia". Euskaltzaileen helburuak lirateke: euskararen ezagutzaren unibertsalizazioa eta espazioen euskalduntzea.

Eskelak



Francisco Javier Lazkoz Flores

II. urteurrena

Gure aldetik joan zinen, baina gurekin egoten jarraitzen duzu.

Zapraneko fameliye

Lakuntza

Naiara Goikoetxea Arteta

II. urtea

Gure bizitzan zaude, gure pentsamenduan, gure bihotzean. Baina zer ez genuke egingo gau hura ez pasatzeko. Maite zaitugu!

Zure Iturmendiko familia





GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70

www.tanatoriosirache.es



**Jokin Ondarra
Erdozia**

Altsasuko lagunak



**Jose Joakin
Ondarra Erdozia**

Oihal beltzean klarion zuriz
izarrak marraztu ditut.

Alainen gelako lagunak eta gurasoak



**Jose Joakin Ondarra
Erdozia "Kintxo"**

Hazia, haurtzaroa, maitasuna, lotura,
zuk emandakoa, gurekin babestuta.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu gure
ondoan egon zareten guztiei.

Etxekoak



**Hainbat
aukera**

Galdetu

948 564 275



Juan Andueza Razkin

Zauden tokian
ez da umorea eta jenioa faltako.

Igandean, 11:00etan, bere kintoek ateratako
meza Lakuntzako elizan.

Elaneko itxekuek

Lakuntzan, 2013ko marsuaren 22an.



**Jose Joakin Ondarra Erdozia
"Kintxo"**

Bakarrekoetxea elkartea



Francisca Zelaia Galarza

Eta negarrez ari naiz... eta zer da ba negarra,
sentimenduen azaleratzea baino?
Barruan duguna kanporatzea baino?
Barrua hustu, zuri tokia egiteko.
Betirako gure bihotzean, amona.

Estibaliz eta Naroa



**Roman Irigoien
Galarza**

Txikia eta xumea baina
guretzat oso gizon
handia, beti bihotzean
eramango zaitugu.

Zure arrebak eta ilobak

JAIOZAK

- Paula Barrero Perez, martxoaren 11n Altsasun.
- Ane Malpartida Plaza, martxoaren 12an Altsasun.
- Sofia de Sousa Almeida, martxoaren 12an Urdiainen.
- Antonia Catalina Stanciu, martxoaren 12an Olaztin.
- Ainhoa del Rio Andueza, martxoaren 14an Urdiainen.

EZKONTZAK

- Ion Olmedillo Malumbres eta Erkuden Pereda Razkin, martxoaren 13an Arbizun.
- Migel Angel Lanz Agirre eta Maria

Luisa Marquez Izquierdo,
martxoaren 16an Altsasun.

HERIOTZAK

- Ana Larraza Etxarri, martxoaren 8an Unanun.
- Berezi Carrascal Ardanaz, martxoaren 8an Irurtzunen.
- Maria Josefa Gorosterrazu Urroz, martxoaren 11n Altsasun.
- Julian Lopez de Agileta Martinez, martxoaren 16an Olaztin.
- Juan Andueza Razkin, martxoaren 17an Lakuntzan.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan
jasotzen da



Naiara eta Garazi

Egunero zaituztegu
oroitzen,
uneoro zaituztegu
sentitzen,
denbora aurrera
doan arren
gure artean
zaituztegu sentitzen.

Zuen kuadrilla

Oroigarriak egiten ditugu
Nahi duzun argazki eta testuarekin

Foru plaza 23-1 Altsasu • 948 564 275 • argi@guaixe.net

GUAIXE
KOMUNIKAZIOA



Pilota

Ohorea jokoan

Binakako Txapelketa. Puntuazioa

10 puntu:	Irujo-Zabaleta
9 puntu:	Olaizola II-Zabala
	Bengoetxea VI-Beroiz
6 puntu:	Berasaluze-Albisu
	Titin III-Merino II
5 puntu:	Ezkurdia-Zubieta
4 puntu:	Xala-Barriola
3 puntu:	Arretxe-Begino

14. jardunaldia, azkena

Irujo-Zabaleta / Arretxe II-Begino (Ostiralean, Mutiloabeitin, 22:00etan. ETB1)
Olaizola II-Zabala / Ezkurdia-Zubieta (Igandean, Eibarren, 17:00etan. ETB1)

Binakako Txapelketako hasierako ligaxka asteburuan despidituko da

Asteburuan jokatuko da Binakako Pilota Txapelketako hasierako ligaxkako 14. jardunaldia, azkena. Irujo-Zabaleta, Olaizola-Zabala eta Bengoetxea VI-Beroiz finalerdietara



Zabaleta eta Irujo finalerdietan daude.

rako sailkatuta daude, eta asteburu honetan jakingo da zein den laugarren bikoa, Berasaluze VIII-Albisu edo Titin III-Merino II. Azken hauek Bengoetxea VI-Beroiz dituzte aurkari, eta Berasaluzek eta Albisuk Xala eta Barriola. Norgailenduko den ikusmin handia dago.

Ligaxkak 13. jardunaldian, Xala-Barriolari 18-22 irabazizieten Irujok eta Jose Javier Zabaletak. Finalerdiei begira etxarrendarrak eta iberoarrak nahikoa txispa izaten jarraitzen dutela demostratu

Mattin Ezkurdia txapeldunordea Zizurren

Larunbatean Zizurko lau t´erdiko Torneoko finalak jokatu ziren. Bi sakandar iritsi ziren finalerara eta, tamalez, ezin izan zuten txapela jantzi. Benjaminetan Migeltorenak (Lagunak) 16-9 irabazi zion Erdoziari (Gure Pilota). Eta seniorretako final handian Joseba Ezkurdiarenanai Mattin Ezkurdiak (Iruztzun) ezin izan zuen Beñat Urretabizkaiaren (Intxurre) kontra (13-18). Urretabizkaiak askosufritu behar izan zuen arbi-zuarraren kontra gailentzeko.

zuten. Bestalde, Bengoetxea VI. ari eta eskuetatik mina hartuta zegoen Beroiz ordezkatu zuen Alexis Apraizi 13-22 irabazi zieten Joseba Ezkurdiak eta Aitor Zubietak.

Pilotari sakandarrek tramite hutsezko partidak jokatu zituzte azken jardunaldian. Hori bai, profesionalak izanik, ohorea beti dago jokoan.

Mendi lasterketak

Sakandarrak II. Arriarango lasterketan

Sakandarrak II. Arriararen

1.	Oier Ariznabarreta	1:05:53
19.	Jose Javier Maiza	1:16:59
43.	Mikel Sasiain	1:20:54
59.	Juantxo Arregi	1:23:28
70.	Iraitz Senar	1:25:05
84.	Andoni Azanza	1:27:53
85.	Tomas Guirado	1:27:54
104.	Jon Zubiria	1:31:23
134.	Sergio Goñi	1:35:32

Larunbatean II. Arriarango Mendi Lasterketa jokatu zen Beasainen (15 km, 900 m desnibel +). 221 korrikalari heldu ziren helmugara, Oier Ariznabarreta buru zela (1:05:53). Sakandarrak lan polita egin zuten eta guztien artean azkarrena Jose Javier Maiza etxarriarra izan zen (19.a, 1:16:59).

Atletismoa

Alberto Martinez 5.a Lekunberriko Leguan

Igandean 25. Lekunberriko Legua-Txikito de Arruitz Memoriala jokatu zen (6.040 m). Guztira 109 korrikalari hartu zuten parte, 58 proba nagusian. Alkozko Mikel Beunza izan zen garailea (20:06), Daniel Sanz antsoa indarrari 5 segundo aterata. Alberto Martinez lakuntzarra 5.a izan zen (20:53). Bestalde, Ismael Lopez de Goikoetxea altsasuarra 30.a sartu zen helmugan (24:47) eta Santi Agirre iturmendiarra 31.a (25:02).

Txirrindularitza

Juniorren LIV Erramu Trofeoa igandean Altsasun

Sociedad Deportiva Alsasuak (SDA) antolatuta, igandean jokatu da juniorren mailako 54. Erramu Trofeoa. Probabeterano hau 10:30ean abiatuko da SDA elkarteke egoitzatik, eta 79 km-ko ibilbidearen ondoren toki berean despidituko da. Altsasutik atera eta Etxarriaraino abiatuko dira txirrindulariak, handik buelta hartu eta Olazitira bidean Altamira portua igo eta jaitsiz. Segidan Etxarriaraino joko dute eta Lizarragako katea igo ondoren, Arbizutik Altsasurako norabidea hartuko dute, atzera ere Altamira portua igotzeko. Ondoren Altsasuko helmugara abiatuko dira.

AZANZA INFERNUKO MILAN-SAN REMON

Elur denboralearen eraginez infernua bilakatu zen Milan-San Remo klasikoa. Ezinean ibili ziren txirrindulariak eta asko erretiratu egin ziren, Egoi Martinez tarteko. Gerald Ciol nagusitu zen proban Jorge Azanzak bukatzea lortu zuen. 81.a izan zen, 7:49ra. Bestalde, Imanol Erbiti hiriberriarra Catalunyako Voltan lehiatzen ari da.

Futbola

3. MAILA

29. JARDUNALDIA

CARBONERO 1 - LAGUN ARTEA 3
Hasieratik sortu zuten arriskua lakuntzarrek. Orrioren geldialdi bikainei eta Gasco, Nieto eta Bakaikoren golei esker 1-3 gailendu ziren.

Sailkapena >>

1.	Mutilbera		59 p
11.	Lagun Artea		41 p

Asteburuko jardunaldia

LAGUN ARTEA - ERRI BERRI
(Igandean, 17:00etan, Lakuntzan)

ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

24. JARDUNALDIA

ETXARRI ARANATZ 2 - BURLADES 0
ALTSASU 1 - ARDOI 0
Etxarrik Burlades menpean hartu zuen, Alaineke eta Gentzak sartutako golei esker. Altsasuk eta Ardoik gol aukera politak izan zituzten, baina Rubiok aurreratu zuen Altsasu.

Sailkapena >>

1.	San Juan		64 p
8.	Etxarri Aranz		26 p
9.	Altsasu		24 p

Asteburuko jardunaldia

ETXARRI - BURLADES
(Larunbatean, 16:30ean, Etxarrin)

ALTSASU - ARDOI
(Larunbatean, 16:15ean, Altsasun)

ELOMENDIKO TXAPELKETA

20. JARDUNALDIA

PARTIZAN 1 - ZALDUA 2
EGIARRETA 3 - BAR POUKÁS 1

Sailkapena >>

1.	Elomendi		29 p
5.	Zaldua		20 p
7.	Egiarreta		17 p

Asteburuko jardunaldia

ZALDUA - ROCA (Bihar Lekunberrin)
ELOMENDI - EGIARRETA (Bihar Elomendin)

Areto futbola

OHOREZKO MAILA

20. JARDUNALDIA

TRIMAN NAV. XOTA 4 - RIOS RENOVABLES 4
Bi talde nafarren arteko derbya launako berdinketarekin despiditu zen. Pare pare aritu ziren biak, ez zen dominatzaile argirik izan. Trimaneko Jesulitok hat tricka lortu zuen, 3 gol sartu eta gero.

Sailkapena >>

1.	Bartzelona		49 p
5.	Triman Navarra Xota		37 p

21. jardunaldia

SANTIAGO FUTSAL - TRIMAN NAV. XOTA
(Larunbatean, 18:00etan, Santiagon)

SAKANAKO TXAP. - IKER KIROLAK

Sakanako 22. Areto Futbol Txapelketa-Iker Kirolakeko 3. Itzulia dago jokoan.

16. jardunaldia (bihar, larunbatean, Altsasun)

ASS APPLE - PIPEROXKI
PATINTER - BILTOKI
AUZOMOTOJORIK - AREZPE

Saskibaloia

EMAKUMEZKOEN SENIOR MAILA

2. MAILA AUTONOMIKOA. 2. FASEA

ALTSASU CBASK 38 - LICEO MONJARDIN 52

Sailkapena >>

1.	Liceo Monjardin		8+4 p
8.	Altsasu CBASK		5-5 p

Asteburuko jardunaldia

ALTSASU CBASK-ek atsedean jardunaldia du.

GIZONEZKOEN JUNIOR MAILA

1. MAILA AUTONOMIKOA

ALTSASU CBASK-ek atsedean jardunaldia zuen.

Sailkapena >>

1.	Burlata A		38+19 p
11.	Altsasu CBASK		20-13 p

Asteburuko jardunaldia

SDR ARENAS - ALTSASU CBASK
(Larunbatean, 12:30ean)

*OHARRA: Informazio +: www.guaixe.net.

Pala

Gure Pilota txapeldun



Gure Pilotako finalista guztiak. Maila bikaina du Etxarriko taldeak. M. ARISTORENA

Sakandarrak Emakumeen Paleta Gomako Nafarroako Kirol Jokoen finaleran

Benjaminak: Gorostiaga-Senosaiain (Fronton Lopez) **16** - Erdozia-Lasa (Gure Pilota) **18**
Haurrak: Pueyo-Senosaiain (Fronton Lopez) **25** - Mendinueta-Lasa (Gure Pilota) **20**
Kadeteak: Murillo-Carrasco (Oberena) **25** - Jaka-Lasa (Gure Pilota) **22**
Jubenilak: Parot-Ansotegi (Gure Pilota) **25** - Unanua-Lusarreta (Oberena) **13**

Igandean 26. Nafarroako Kirol Jokoen Emakumeen Palako finalak jokatu ziren Labriten. Bost finaletatik lautan Etxarri Aranazko Gure Pilota klubeko palistak zeuden, aipatu klubean emakumezkoen palari ematen dioten garrantziaren isla. Bost txapeletatik bi etorri ziren Sakanara: Parot-Ansotegik eta Erdozia-Lasak lortutakoak.

Herri kirolak

NAFARROAKO HERRI KIROL JOKOAK

Sakandarrek txapela janzteko aukera dute

Larraitzarrek hartuko du finala, igandean, 11:00etan, pilotalekuan

Nafarroako Kirol Jokoen laugarren jardunaldia jokatu zen Etxarri Aranzaten igandean. Jakina denez, Andra Mari ikastola, Iñigo Aritza ikastola eta Andra Maritik sortutako Putterri taldeak ari dira lehian Nafarroako Kirol Jokotan, kategoria ezberdinetan. Lau jardunaldi horiek jokatu eta gero, igandean Larraitzarko pilotalekuan 11:00etan jokatu diren finalerara zein talde pasako diren zehaztu da. Talde sakandarrek txapela janzteko aukera dute eta ea horrela den.

Finalak (igandean Larraitzarren)

Herri kirol proba konbinatua

-Kimuak: 8 taldeetatik finalera sailkatu diren 4 taldeak: 1. Andra Mari. 2. Putterri. 3. BKE. 4. Araxes. Iñigo Aritza finaletik kanpo geratu da 7.a sailkatu eta gero.
-Haurrak: 7 taldeetatik finalera sailkatu diren 4 taldeak: 1. Berriozar. 2. Andra Mari. 3. Iñigo Aritza. 4. Basaburua. Putterri azkena izan da eta ez da finalerako sailkatu.

-Kadeteak: 4 talde ari direnez, txapelketa liga sisteman jokatu dute, 5 jardunalditara. Sailkapena: 1. Basaburua (4 puntu). 2. Andra Mari (3 puntu). 3. Ultzama (2 puntu). 4. Berriozar (puntu 1).
Sokatira (liga sisteman)
-Haurrak (480 kilo): 5. jardunaldia jokoan. Sailkapena: 1. Berriozar (5 puntu). 2. Iñigo Aritza (4 puntu). 3. Andra Mari (3 puntu).
-Kadeteak (540 kilo): 5. jardunaldia jokoan. Sailkapena: 1. Andra Mari (3 puntu). 2. Berriozar (2 puntu). 3. Ultzama (puntu 1).

Duatloia

IV. Razesa Duatloi Sari Nagusia bihar Altsasun

Goizeko 10:50ean Nafar Kirol Jolasen Duatloi proba hartuko du Altsasun, eta 16:00tan nagusien proba jokatu da, aldi berean Nafarroako Sprint Duatloi Txapelketa dena

Duatloiaren ikuskizunaz gozatze-ko aukera paregabea dago bihar, larunbatean, Altsasun, Sakana Triatloi Taldeak hainbat entitate eta babesleen laguntzarekin antolatutako IV. Razesa Duatloi Sari Nagusia jokatu da baita. Goizean, 10:50ean, kategoria txikikoak ariko dira lehian, Nafar Kirol Jokotarako (NKJ) baliagarria den proban, eta arratsaldean, 16:00etan, proba nagusia jokatu da, aldi berean Nafarroako Sprint Duatloi Txapelketa izanen dena. Altsasuko duatloia Nafarroako eta Euskadi-Nafarroako Zirkuituetarako baliagarria da.

10:50ean kategoria txikikoak, Txikiak

Aurten ere kategoria txikikoak duatloian aritzeko aukera izango dute, Txikiak haur ikastolaren inguruetan prestatutako zirkuituan. Aurrebenjaminak 10:50ean hasiko dira, benjaminak 11:10ean, kimuak 11:30ean eta haurrak 12:20ean. Juniorrek eta kadeteek helduen proban parte hartuko dute.



Trantsizio gunea lortia kultur gune aurreko plazan egonen da.

16:00tan helduak: 5 km-23 km-2,5 km

IV. Razesa Duatloi Sari Nagusia arratsaldeko 16:00tan abiatuko da Foru plazatik. 16:00etan emakumeak abiatuko dira eta 16:15ean gizonezkoak. Altsasuko Alde Zaharrean prestatutako 2,5 km-ko zirkuituari bi bira eman beharko diote korrika duatletek, segidan lortia Kultur Gunearen aurrean dauden boxetan, trantsizio gunean, bizikleta hartu eta 23 km-ko distantzia osatzeko. Aurten bizikleta ibilbidea berria izango da:

Bakaikuraino joango dira, han buelta hartu, Altsasun sartu eta Ortzaurreterako bidegurutzeraino heltzeko, bertan buelta hartu eta Altsasura, trantsizio gunera jotzeko. Bukatzeko, bizikleta utzi eta 2,5 km-ko zirkuituari bira bat eman beharko diote korrika, Foru plazako helmugara iristeko. Antolakuntzatik adierazi dutenez, Altsasutik txirrindulan igaro ez diren parte-hartzaile guztiak lasterketatik kanpo geratuko dira lasterketa buruak azkeneko korrika sektorea hasi badu.

Sariak

Lehen gizonezko eta emakumezkoak: 200 euro + garaikurra
Bigarren gizonezko eta emakumezkoak: 125 euro + garaikurra
Hirugarren gizonezko eta emakumezkoak: 75 euro + garaikurra
Lehen juniorrak, lehen 23 urtez azpikoak, lehen beteranoak eta lehen sakandarrek (gizonak eta emakumeak) trofeo jasoko dute.
Talde onenak saria jasoko du.

www.navarratriathlon.com

Izena ematea eta probaren informazioa. Informazio +: www.dantzalekusakana.com.

Felix Benjumea 6.a Arangurengo Duatloian

Igandean Arangurengo Duatloia jokatu zen (4 km korrika, 14 km bizikletan eta 2 km korrika). Saltoiko Martin Ignazio Muller (44:52) nagusitu zitzaion bere taldekide Beñat Ezkerrari (45:49). Sakana Triatloi taldeko Felix Benjumea oso lan ona egin zuen eta 6.a iritsi zen helmugara (47:24). Hiruki taldeko Jose Ignazio Mikeo 14.a izan zen (49:06). Sakana Triatloi Taldeko Javier Borrega erretiratu egin zen. Emakumezkoetan Ana Monreal izan zen azkarrena (54:38).

Oñatiko Duatloia

Larunbatean Oñatiko Duatloia jokatu zen (10 km korrikan, 40 km bizikletan eta 5 km korrikan). 247 duatleten artean Felix Javier Martinez izan zen azkarrena (1:53:55). Sakana Triatloi Taldeko Mikel Berdud 130.a izan zen (2:12:08) eta Juantxo Azurmendi 188.a (2:22:07).

dute eta bukatzerakoan, helmugan, edari eta janari hornidura izango da. Dutsak Zelandi kirol gunean izanen dituzte eskura.

2012ko taldearen aurkezpena

SAKANA TRIATLOI TALDEAREKIN BAT

Vitalox

Gas Teknikoak

Triatloi eskola

Altsasuko duatloia

Sargaitz poligonoa
 Uharte Arakil · 626 606 041
www.vitalox.es

2013ko taldearen aurkezpena

kultura >>

ANDA HIZLARI: Jose Ramon Andak hitzaldia emanen du Iruñeko Arte Eskolan. Eskultore bakaikuarra heldu den asteartean ariko da. Egileekin

Topoaket programaren barruan antolatute Andaren hitzaldia eta publiko guztia zabalik dago.

Tronboi-joleen **biltzarra**

Gaurtik eta igandera arte Dando la vara tronboi ikastaroaren 3. edizioa hartuko du Altsasuk

Haize Berriak bandak bihar ikasle eta irakasleekin kontzertua emanen du, 20:30ean Iortia kultur gunean. Etziko sarrerak erosiak zituenak, larunbaterako erreserbatuak ditu

Joan zen urteko etenaren ondoren, ekonomiak ez zuen ematen, Haize Berriak bandak bere proiektu estimatu bati heldu dio: Dando la vara nazioarteko tronboi ikastaroa, Nafarroako Banden Federazioaren laguntzaz antolatzen duena. Gaurtik igandera arte hainbat tokitatik etorritako 30tik gora tronboi-jole Altsasun izanen dira. Ikastaroak bi maila ditu. Hasi berrien mailan musika eskolatan ari diren ikasleak bilduko dira eta klase kolektiboetan parte hartuko dute. Ikasle aurreratu mailan, berriz, kontserbatorioetako ikasleak eta tronboi-jole profesionalak ariko dira.

Musika eskolako geletan irakasle ariko dira Victor de Andres



(Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioiako irakaslea), Marco Bellizzi (Gasteizko bandako bakarlaria) eta Victor de Andres (Gasteizko Udal Bandako bakarlaria).

Haiekin batera, ohi bezala, atzerrian sona handia duen musikari bat: Becky Smith. Ingalaterrakoa, munduan barna makina bat emanaldi eskaini ditu emakumez osatutako Bones Apart tronboi laukotearekin. Freelance musikari gisa Britainia Handiko makina bat orkestrekin jo du. Sakana-komusika bandako zuzendari Luis Orduñak esan digunez, pertsonal-

ki ezagutzen ez duten atzerriko aurreneko irakasle gonbidatua da. "Prestaketan ari ginela, etorkizun handia duen gaztea dela azaldu zuten. Gonbitea egin eta onartu zuen. Egia esan Gilles Milliere (Parisko Goi Mailako Kontserbatorioiako) irakaslea aritu ondoren ikastaroak itzala du".

Kontzertua

Orduñak azaldu digunez, biharko emanaldian irakasleak eta ikasleak ariko dira bandarekin batera. Aurreneko zatian dantzari omenaldia egingen zaio eta horretarako

egungo emakume-musikagileek sortutako musika joko du Haize Berriak bandak, Becky Smith bakarlari gonbidatua delarik. Dantzak femeninoan izenburua du aurreneko zati horrek eta "emakume sortzaileen lana ikusarazi nahi dugu", esan digu Orduñak.

Emanaldiaren bigarren zatian, Smith bakarlari gonbidatu gisa ariko da, baina berarekin batera ikastaro beste hiru irakasleak eta ikasle guztiak ere. Guztiak Orduñak zuzenduta. Haize Berriak bandatik "umorea eta musika ona" ziurtatu dituzte.

Ura, ingurunea eta Sakana. Bidali argazkia!



Altsasuko Liburutegiak Ura eta Auzure ingurunea: Sakanako argazkiak izeneko argazki erakusketa antolatu du Liburuaren Asterako, apirilaren 22tik 28ra. Erakusketa antolatu ahal izateko gaiari lotutako argazkiak atera eta lehiaketara bidaltzera animatu dute Altsasuko Elena eta Mari Luz liburuzainek. Ziur ura gaia hartuta makina bat argazki eder atera ahal direla Sakanan. Jasotzen diren argazkiekin erakusketatik egiteaz gain, argazki horiekin album bat egingen da.

Lehiaketa adin guztiei dago zabalik. Argazkiak biblia@sfnavarra.es posta elektronikora bidali behar dira edo liburutegira eramane behar dira, apirilaren 15a baino lehen.

Lakuntzarrak Nafarroako Haur Kantari jaialdian

Larunbatean, 18:00etan, Artikako kultur etxean

Bihar martxan jarriko da Nafarroako Haur Kantari Jaialdia. Eta han izanen dira parte hartuko duten sakan-darretako batzuk, Lakuntzako Luis Fuentes ikastetxe publikoko ikasleak. Bi talde joanen dira Artikara: 6. mailako Ainhoa Cartagena, Leire Sagarzazu, Idoia Torrente, Kristina Zubillaga, Jasone Auzmendi eta Amets Cerviño Hesian taldearen Gurekin kantua abestuko du.



Bestalde, Esne Beltzaren Euskaraz bizi nahi dut abestia kan-

tatuko du 2. mailako gela osoak: Aitor Auzmendi, Salah Erramad,

Amin Hamdi, Izaro Jimenez, Ixone eta Maddi Lakuntza, Aiora Larraza, Adrian Martinez, Ander eta Maialen Ormazabal, Didac Pino, Alex Ureña eta Ainhoa Bergara.

Nafarroako Kantuzale Elkartekoak boluntarioen laguntzaz aurrera atera duen Jaialdiak hiru saio izanen ditu: apirilaren 13an Tuteran eta 27an Berriozarren. Azken horretan ariko dira Lakuntzako Saansastin musika eskolako 3 talde. Jaialdia Burlatan despidituko da, Euskal Herriko haur kantariak hartuko dituen ekitaldian.

Lau herri Antzokien Sarean

Astlehenean sortuzen Nafarroako Antzoki Sarea osatzen duten toki erakundeen elkarteak. Irurtzun, Etxarri Aranatz, Altsasu eta Olatzagutiko udalek osatzen dutesarea, Nafarroako beste 21ekin batera. Lehen saiakera baten ondoren, bigarren aldiz eratu da sarea. Bere egitekoa da arte eszenikoen eskaintza profesionala, anitza eta kalitatezkoa eskaintzea erregulariki; elkarteak kideen baliabideak optimizatzea eta Kultura Departamentuarekin elkarlana sustatzea. Nafarroako Gobernuarekin 3 urterako hitzarmena sinatuko dute.

Punk zelta gaztetxean

Gaur, 23:00etan, Altsasuko gaztetxea.

Pragatik etorritako Pipes and Pints taldeak gaitadun punk eskaintza ekarriko du gaur Altsasura. Maketa, disko txikiaren ondoren bigarren diskoa aurkeztuko dute: *Found and Lost*. Punk doinuak gaita Irlandako gaitetz lagunduta. Doinu zuzenak, animatuak eta kantatzeko moduko lelo-



ekin. Haien aurretik, Agoizko Plan de Emerjencia punk taldea ariko da, AgOitZ maketa aurkeztzen.

Aukeratu Guaixe

Proiektu zenbakia: **50410**

Nafarroan erroldatuta egotea eta 18 urte edo gehiago izatea.
Bete formularioa, sinatu eta ekarri bulegora.
Zuri esker 10€ko laguntza jasoko dugu.
www.cajanavarra.com

cajanavarra

Eskatu KORRIKako argazkiak Kiki argazki dendan

Guaixe.net **nik**

Iortia plaza • Altsasu • 948 46 90 23



Zinema gidoia hizketa-gai



Gaur, 21:00etan, Olatzagutiko kultur etxean.

Olatzagutiko literatur taldeak martxoan ezohiko irakurgai izan du esku artean: film baten gidoia. Joseba Salegik idatzi berri duen gidoia, *Teclara rota*. Zuzendari altsasuarrek bere film berriaren gidoia literatur taldeari (eta hainbat herritarri) utzi die. Haiek irakurri eta gidoiaren inguruan duten iritzia Salegiri

zuzenean azaltzeko aukera izanen dute.

Halako iritzi trukeak bilatzen ari da altsasuarra gidoia ontzeko prozesuan. Orain arte banakako-ei pasa die gidoia, baina estreina-ko aldia da talde baten aurrean jarriko dena bere obraz duten iritzia jasotzeko. Jendeak egiten dizkion ekarpen guztiak, onerako eta txarrerako, kontuan hartzen ari da Salegi, beti ere, istorioaren mesedetan.

Lazkoz, Nafarroako zortziko handian

Bihar, 17:00etan, Iruñeko Anaitasuna kiroldegian Nafarroako Bertsolari Txapelketako finala.

Nafarroako Bertsozale Elkar-teak guztia prest du bihar-ko. Nafarroako bertsolari-tzaren eta euskal kulturaren festa handia izanen da. Bertsozaleak Julio Soto, Xabier Silveira, Aimar Karrika, Erika Lagoma, Jon Barberena, Eneko Fernandez eta Oskar Estangarekin batera ariko da Eneko Lazkoz. Etxarriarraren 3. finala izanen da jarraian.

Nafarroako txapela jokoan ego-teaz aparte, finaleko lehen lausailkatuek udazkenean jokatu den Bertsolari Txapelketa Nagusira-ko txartela lortuko dute. Beraz, biharko saioko parte-hartzaileek pizgarri bikoitza dute duten one-na emateko.

Lana

Bertsolariak honako lana egin beharko dute Anaitasunako final-lean: zortziko handian binaka gaia



emanda 3na bertso; zortziko txi-kian binaka ofizioka 3na bertso; zortziko txikian bi punturi erant-zun; sei puntuko motzean bina-ka ofizioka 3na bertso eta kartze-lako lana: gaia emanda bakarka hiru bertso. Lan horiek despedi-tuta aurreneko bi bertsolarien arteko aldea 20 puntu baino txi-kiagoa bada, buruz burukoa izan-en da. Horretan, hamarreko txi-

kian gaia emanda 3na bertso osa-tu beharko dituzte finalistek eta kartzelakoan, berriz, gaia eman-da bakarka bi bertso.

Finalarekin nahikoa ez, erabat ase nahi duenak, saioa despeditu-ta Iruñeko Auzmendisagardotegian egingo den afarirako txartela eros-teko aukera du. Horretarako www.bertsosarrerak.eu atariaren bidez eskuratu dezake txartela.

bazterretik

Erkuden de Andres Imaz

Antzerkiaren egun mundiala

1961. urtetik urtero bezala aurten ere martxoaren 27an Antzerkiaren Egun Mundiala ospatuko da. Antzerkia (grekoz Théatron "kontenplatzeko lekua") arte eszeniko adar bat eta literatura genero bat baino askoz ere gehiago da. Istorioak, pentsamenduak eta emozioak errepresentatzen dituen elkarriketa, keinu, eszenografia, musika, soinu, mugimendu, kolore eta abar luze-luze bat da.

Antzerkiak hunkitu, kontatu, argitu, eztabaidatu, asaldatu, haserretu, goraipatu, jakinarazi, probokatu egiten du. Antzerkia komunikazio bide bat da eta bere helburu edo aditz nagusiak komunikatzearen arren, bere atzean mila aditz gehiago daude: jolas-tu, ikertu, entzun, mugitu, bidaiatu, konpartitu, txalotu, hitz egin, negar egin, barre egin, pentsatu, disfrutatu, sentitu, amets egin... eta mila aditz, ekintza, hitz, kolore eta usain gehiago aipa nitzake. Baina zutabe hone-tan gehienez bi mila eta zazpiehun

karaktere ditut mugatuak espazio-ekin, beraz gaurkoz ezin.

Antzerkia beti egon da gurekin eta beti egongo da. Beharrezkoa da istorioak kontatzeko, bizipenak ezahaz-teko, erreflexioak egiteko eta, nola ez, irri egiteko ere bai.

Aurreko egunean nire ohean nen-goan duela urte asko idazle batek idatzitako hitzak irakurtzen, non agertzen zen protagonista bat zein-ak bere buruaz beste egiten zuen ondoko auzolagun batek etxea ken-tzen ziolako. Akaso hamasei urte

nituenean, lehendabiziko aldiz ira-kurri nuenean, sinestezina iruditu zitzaidan istorio hau. Baina pasaden egunean, berriro irakurri nuenean, ez zitzaidan hain sinestezina irudi-tu. Zergatik izango da?

Ez dakit non egongo garen hemen-dik berrogeita hamar urtetara, ezta bost urtetara ere. Eztagizarteak nola funtzionatuko duen hemendik ehun edo mila urtetara... dakidana da ez direla ahaztuko gaur egungo istorio eta bizipenak, antzerkia mantentzen den bitartean. Antzerkiak bizirik

mantenduko ditu bere etxetik salto egin duten gorputz eta arimak eta hegan joangodira urteetan zehar hitz, musika, mugimendu, keinu, soinu, argi... eta abarren esku eta laguntza-ren bidez.

Antzerki beharrezkoa dugun komu-nikabidea eta ekintza poetikoa da. Nik komunikazio poetikoan sinisten dut. Eta zuk?

www.hegandream.com

Bi mila ehun eta berrogeita hama-bi karaktere espazioekin idatzi duen hegalar poetikoa.

MARTXOAK 23, LARUNBATA • 20:30

DANZAS EN FEMENINO

KONTZERTUA

BANDA HAIZE BERRIAK

Frontolko zeharbidea, z.g. 31800 • Altsasu • 948564272 • iortia@altsasu.net • www.facebook.com/iortia

YOKO

3€

IGANDEA 24 17:00

Melancholia

Lars von Trier

5€

MELANCOLIA

OSTIRALA 22 21:45

IGANDEA 24 20:00

LINCOLN

5€

LINCOLN

OSTIRALA 22 22:00

IGANDEA 24 20:10

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
						
euria: 12%	euria: 33%	euria: 33%	euria: 28%	euria: 57%	euria: 67%	euria: 53%
Min: 8 Max: 16	Min: 5 Max: 15	Min: 4 Max: 12	Min: 4 Max: 12	Min: 5 Max: 11	Min: 5 Max: 9	Min: 3 Max: 11

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	-	-	-
Etzarri A.	12.8	-1.5	57.8
Altsasu	12	-1	37.3
Aralar	3.5	-5.1	25.3
Urbasa	-	-5	-

ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
			
27	3	10	18

Saria Komertzioek emandako produktuez osatutako lotea